342 zenbakia. 1998ko azaraoren 6a. JARDUN ELKARTEA

# Berrigara

Bergar



# Azur

## Artea eta bizitza

RAMON BASTIDA

xey
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



# GUIPUZCOANA

**Paketeen garraio eta banaketa**

EURODIS

PAKETERIA ZERBITZU EGUNEROKOA

- *Elkarte europarrera*

+

- *Suizara,*
- *Noruegara,*
- *Poloniara eta*
- *Hungariara*

**BERGARA**

**Tf.: 76 36 42**
Faxa: 943 76 54 25
San Juan auzoa z/g
20570 Bergara

# ad LAGUN GARAJEA




**HELBIDE BERRIA** Santalaitz 3an (IAT/ITVren ondoan) Tf. 943 76 11 20

Mekanika orokorra • Autoen konponketa • IATrako prestaketa • Pneumatikoak • Direkzio alineazioa



# Nor da independentziaren beldur?

**Markos Balentziaga** / Irakaslea

Aurtengo udazken busti honetan Euskal Herriko politikaren plaza azoka zaratatsu samarra ere bihurtu zaigula esango genuke. Hala ere, azoka horretara nik ere eraman nahi dut neuretxoa salgai..., ez dakit merke-merkea den, baina, erostaileentzat. Hara:

Nazionalista jendeok begiak luzeegi ote ditugun beldur dira... *no nacionalistak*..., *ámbito nacional*ekoak..., hau da, *españolistak*. Zergatik arraio ez dute erabili nahi *españolista* izena, horixe izanda? Eta luzatu ere independentziaraino luzatzen ditugula diote. Independentzia -eszisio edo zatiketa, alde *hartatik* begiratutada arazo. Euskal Herriak ezin ote du, bada, izar izan Europako zeru gainean?

Argi dago gero eta elkarri lotuago den Europa honetan independentzia kontzeptua bera ere aldaturik dagoela. Esaterako, txanpona ez dugu auzigai: inoiz balizko izan dugun "eusko"tik eurorako bidea egina daukagu. Eta kitto! Edota armadarik behar ote du Euskal Herri independienteak? Zertarako? Bestela ere, NATOren mantenimendua merkea da ala? Hezkuntza-sistema eta zergak biltzeko eta administratzeko tresneria, berriz, biribilkizun ditugu, baina tamaina politena garatuak ere bai. Optimismorik ezak ez gaitzala jo! Lanaren, Justiziaren edo Osasunaren eremuetan, Industrian..., eta beste gehiagotan, sistema autonomoak oso gordin ditugu, umegorritan ez esatearren.

Baina ezer motz eta gordin zurrean badugu, hori lurraldetasuna dugu: nondik nora hedatu behar du Euskal Herri burujabeak? *Zazpiak bat* hasiera beretik, kosta ahala kosta? Kontu honetan ere bada xelebrekeriarik: Nafarroak etorkizunean zer izan nahi duen nafarrek berek erabaki behar dutela kantatzen digute *navarrista*, demokrata berri eta enparauek beren oilategitik, geure obligazioak ez bagenekizki bezala. Horixe aipatzen badiezu Euskal Herriaren etorkizunaz..., "Kontuz! -erantzungo dizute- Konstituzioaz ahazteke!".

*"Kirol selekzioek lehen urratsak emanak dituztela jakineko kontua da; aurrerako bidea autopista bat ez dena ere ederki ikusten dugu guztiok"*

Kirol selekzioek lehen urratsak emanak dituztela jakineko kontua da; aurrerako bidea autopista bat ez dena ere ederki ikusten dugu guztiok.

Aipatzeko geratzen dira beste mila eta bi katramila..., eta borondate politikoa guzti-guztien gainetik; horixe baita hemen, azken buruan, kontua: borondatea. Edota zein da, bestela, adibidez, Espainiak Bruselaren esku txanpona jaulkitzeko soberania utzi izanaren gakoa, borondatea ez bada? Noia onar lezake españolito *bravo* batek, inongo kezkarik gabe, Espainiaren defentsarekin konpartitu beharra, borondate politikorik izan gabe? Kanpo arazoetan, Europaren baitan, Espainiak zenbaterainoko beregaintasuna gordetzen du?

Eta inor ba al da mindurik Espainiaren soberania besamotzago edo herrenago delako? Non arraio dago Espainiaren soberania bermatzen duen konstituzio dontsua bere erreklamazioak egiteko?

Ez dago mindurik, ez dago erreklamaziorik, jakina!

Bada, gaurkoan, gogoeta hauexek ekarri nahi nituen plazara, azokako giroari animo onean segitzen laguntzeko. Ez dira errazak saltzen, arrano-pola! B

## barruan



**Mikel Andueza**

Dominikoa

***"Mitch hurakanak nekazaritza produkzio gehiena suntsitu du Ertamerikan"***

8. orrialdean.



**Aitor Zabaleta**

Auto pilotua

***"Europara joateko ahaleginetan nabil baina hori sponsorren esku dago"***

21. orrialdean.



**Mari Cruz Maiztegi**

Ninika loradendakoa

***"Tulipana eta garoa gustokoen ditudan lorea eta landarea dira; gutxien, bilbergia"***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1552.*** Azaroaren 4an Domingo Martinez de Irala, Rio de la Platako gobernadore izendatu zuten.

**1777.** Azaroaren 4an Bergarako Errege Mintegia sortu zen.

## zozketak

**AEKren Asmaizu Lehiaketako** irabazleak hauek dira: Josu Mozos, Cesar Larrea, Borja Barrutiabengoa, Iker Ibarguren, Amaia Sasiain, Iñaki Legorburu eta Mirian Olabarria. Irabazle orokorra, berriz, Amaia Aristegi izan da. 901 lagunek hartu dute parte lehiaketan eta 520k erantzun dute ondo.

**Bedelkarren lehiaketan** honako bost hauek jasoko dute hogei mila pezetako txartel bana, Bedelkarreko denda, jatetxe edo tabernetan gastatzeko: Naroa Bernardo, Jesus Frago, Maria Luisa San Vicente, Beñat Etxezarreta eta Maria Jesus Marauri.

**BONO LOTO**
**Eguakitza 30**
4-8-16-22-25-45 (osag.10/er.4)
**Astelehena 2**
1-2-6-20-38-43 (osag.41/er.5)
**Martitzena 3**
11-20-22-24-31-37 (osag.32/er1)
**Eguaztena 4**
8-11-21-28-33-38 (osag.26/er.8)

**PRIMITIVA**
**Zapatua 31**
6-7-8-15-21-47 (osag.24/er.2)
**Domeka 1** ***Gordoa***
1-12-15-16-27-37 (osag.17/er.1)

**ONCE**
**Eguakitza 30:** 92.862 (K. seriea: 043)
**Astelehena 2:** 13.218
**Martitzena 3:** 71.685
**Eguaztena 4:** 36.806

**BESTE BATZUK**
**Amnistia aldeko batzordea, autokarabana:**
68.219 (agertuko ez balitz: 108.250)

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Eguraldiak hobera egingo du astebukaeran. Eguakitz, zapatu eta domekan zeru garbiak nagusituko dira. Tenperaturak gora egingo du eta haizeak hegotik joko du arin, batez ere zapatu eta domekan.

## Ilargiaren aldiak

Ilbete: azaroak 4
Ilbehera: azaroak 11
Ilberri: azaroak 19
Ilgora: azaroak 27

## Eguzkia

*Domeka, azaroak 8*

Sortu: 07:55
Gorde: 18:06

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 29** | 14 | 7 | *2,1* |
| **Eguakitza 30** | 17 | 9 | - |
| **Zapatua 31** | 21 | 6 | *0,9* |
| **Domeka 1** | 14 | 7 | *0,8* |
| **Astelehena 2** | 21 | 9 | *20,7* |
| **Martitzena 3** | 15 | 12 | *9,3* |
| **Eguaztena 4** | 12 | 8 | *6,3* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Aldenik alden**

Alderik alde, zeharretara.
Goitik-beheraren aurkakoa.

*- Aldenik alden*
*goldatu biakou*
*soo aura,*
*goittik bera*
*goldatzeko*
*aldapa aundixa dago ta*

*- Aldenik alden*
*ebai zeban oiñaztuak arbolia.*




JOSU OKINA

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Janari garbiak

Hiru bat urte barru, janarietarako bakteria-detektatzaileak merkaturatuko dira Texas Instruments-en eskutik. Aparailuaren funtzionamendua hau da: argi izpi bat kristalezko prisma batetik pasatzen da eta karga elektrikoak sortarazten ditu bera eta metalezko xafla baten artean. Xafla hori da elikagaira hurbiltzen dena. Gero, sentsore batek bakteriak dauden ala ez antzematen du.

## Farmaziak

**Eguakitza 6:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Zapatua 7:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Domeka 8:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*
**Astelehena 9:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*
**Martitzena 10:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*
**Eguaztena 11:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*
**Eguena 12:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

## Ogia

**Domeka 8:** Mizpildi.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 79 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak



**Endika Gandiaga**
Azaroaren 2an
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Agurtzane Elortza**
Urriaren 26an
36 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**M. Nieves Elguero**
Azaroaren 1ean urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak eta bereziki Juan.



**Luis Mari Ilarduia**
Urriaren 29an
55 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta arreba Juani.



**Amaia Iparragirre**
Azaroaren 10ean
10 urte. Urte askotarako eta muxuak! Ane eta Gorka.



**Gorka Larrañaga**
Azaroaren 7an
2 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta etxekoak.



**Alicia Bernal**
Urriaren 22an urtebetetzea. Urte askotarako! Naiara, Irene eta familiakoak.



**Valentina Montero**
Azaroaren 3an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Alazne Murgizu**
Urriaren 30ean
4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Alex Calvo**
Urriaren 31n
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Iloba Amaia.



**Senead Ross McGahi**
Azaroaren 4an
urtebete. Urte askotarako! Familiakoak.



**Ane Aramendi**
Azaroaren 7an
2 urte. Urte askotarako! Familiakoak eta Nekane

## jaiotakoak

**BERGARA**

**Alasne Etxabarri Alberdi.** Azaroak 4
**Yune Nogueiras Crespo.** Urriak 24
**Mikel Azkarate Durana.** Urriak 27

## hildakoak

**BERGARA**

**Felix Lizarralde Bakoikua**
Urriak 28, 69 urte
**Damiana Elorriaga Zabaleta**
Urriak 30, 75 urte
**Asuncion Garcia Alonso**
Azaroak 1, 72 urte

**ANTZUOLA**

**Lorenzo Azkarate Lizarralde**
Urriak 31, 62 urte
**Hermenegildo Ignacio Benitez**
Azaroak 3, 78 urte
**Pedro Telleria Elorriaga**
Azaroak 3, 91 urte



**Aizibar Bikuña**
Urriaren 30ean
8 urte.
Urte askotarako!
Eneritz eta etxekoak.



**M. Karmen Heras**
Azaroaren 3an
urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak eta lankideak.



**Idoia Igartua**
Urriaren 31n
12 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Iker Mellado**
Azaroaren 6an
4 urte.
Urte askotarako!
Aita eta ama.



**Itsaso Gantxegi**
Azaroaren 7an
urtebete. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Ane Mujika**
Azaroaren 5ean
urtebete. Urte askotarako! Etxekoak eta algunak.



**Eneko Lagoma**
Azaroaren 4an
11 urte.
Urte askotarako!
Rosi eta etxekoak.



**Maite Zabaleta**
Azaroaren 10ean
16 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



**Justa Artolazabal**
Urriaren 28an
86 urte.
Urte askotarako!
Ibon eta Nere.



**Izaskun Urriategi**
Urriaren 31n
55 urte.
Urte askotarako!
Ibon eta Nere.



**Sabas Igartua**
Urriaren 30ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Josune Alberdi**
Urriaren 30ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Andres Argarate**
Azaroaren 5ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mikel Rodriguez**
Azaroaren 4an
urtebete. Urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



**Maialen Legorburu**
Azaroaren 8an
13 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Marina Centeno**
Azaroaren 8an
6 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta etxekoak.



**Patty**
4an 19 urte. Urte askotarako! Ama, Oihana, Joakin, Fatima eta Izaskun.



**Imanol Lizarralde**
Azaroaren 1ean
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Santi Tena**
Urriaren 31n
25 urte. Urte askotarako Santi! Marisol eta familiakoak.



**Gurutze Arregi**
Azaroaren 4an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ane eta Maddi.



**Ander Fuentes**
Azaroaren 6an
2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



**Alexander Garitano**
Azaroaren 7an
34 urte.
Urte askotarako!
Amaia eta etxekoak.



**Agus Zurro**
Azaroaren 2an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Alberto Zurro**
Azaroaren 6an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Arantxa Molina**
Azaroaren 3an
26 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Markel.



**Mireia Egaña**
Azaroaren 2an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Ramiro Iglesias**
Azaroaren 14an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Alexander Iglesias**
Azaroaren 3an urtebetetzea. Urte askotarako! Familiakoak.

**Igone Garitano**
Urriaren 30ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.

**Maika Jaso**
Azaroaren 10ean
10 urte.
Urte askotarako!
Leire eta Idoia.

**Mireia Iglesias**
Azaroaren 4an
9 urte. Urte askotarako etxeko sorgina! Ahizpa eta gurasoak.

**Amaia Galarraga**
Azaroaren 12an
3 urte.
Urte askotarako!

# ANTZERKIA

▶ **Chimères** taldearen "Haurrak zutik" bihar, zapatua, 19:00etan Azpeitiko Zelaitxo antzokian.

# MUSIKA

▶ **Udal Musika Bandaren kontzertua** domekan 12:30etan Osintxuko pilotalekuan. Programa: *Arraunlariak* (Amenabar), *Tancredi* (Rossini), *Gigantes y cabezudos* (Caballero) eta *Highlights from Hook* (Williams).

▶ **Las Brujas** (Javier Sun eta Xabi "Sr. No") bihar, zapatua, 23:00etan Nahikari tabernan.

▶ **Doctor Deseo eta King Putreak** bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

▶ **Jazz blues jaialdia**
Elorrion: gaur, eguakitza, Andrzes Olejniczak Quartet 23:00etan Ateneoan; bihar, zapatua, Red House blues taldea ordu eta toki berean.

# ERAKUSKETAK

▶ **Jabier Merkader**en ikonoak, hormako zeramiken erakusketa Kultur Etxean.

▶ **"1898-1998: otros cien años de conquista"** erakusketa Nahikarin, Komite Internazionalisten eskutik.

ANTZERKIA

## "Kale gorrian"

**Noiz: zapatuan, 22:30etan**
**Non: Novedadesen**
**Sarrera: 800 pezeta. 500 Langabetu Txartelarekin edo Gazte Txartelarekin**

Zornotzako Markeliñe taldeak "Kale gorrian" izenburuko lana antzeztuko du bihar Novedades aretoan. Duela hiru urteko Azpeitiko Antzerki Topaketetan epaimahaiaren zein publikoaren saria jaso zituen lan honek, orduan "La Garbo S.A." gaztelerazko tituluarekin. Markeliñekoak beteranoak ditugu Euskal Herriko antzokietan, izan ere dozena bat urte daramatzate antzerkigintzan. Oraintsu, "Kartoi biraka" beraien azken lana aurkeztu dute Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketen barruan.

"Kale gorrian" lanean Iñaki Egiluz eta Javier Renobales dira aktore bakarrak, bi kale garbitzaileren paperean. Apostu gogorra egin dute bizkaitarrek lan mutua, hitzik gabekoa plazaratzerakoan. Umorezko lana da eta lanean ari diren bitartean bi lagunen izaera ezberdina somatuko dute ikusleek. Bata gaztea, martxosoagoa, solidarioagoa dugu; bestea, berriz, beteranoa, eszeptikoagoa, bizitzan dagoeneko gauza asko bizi izan dituen horietakoa. Hala ere, laneko elementu eszeniko eskasak aprobetxatuz, egoera barregarriak antzeztuko dituzte bi lagunek. Beraien arteko harremanak ezusteko norabidea hartuko du egiten duten lana egiteko makina bat jarriko dutela jakitean. Bietako bat lanik gabe geratu beharko da eta horrek bi lagunen arte'ko norgehiagoka piztuko du eta, errealitate gordina, beharra edota biziraupena nagusituko da. Markeliñekoek amaiera poetikoa emango diote ikuskizunari. B



Orain dela 3 urte Azpeitiko Antzerki Topaketetan saritua izan zen Markeliñe.

# LEHIAKETAK

▶ **Jose Maria Arizmendiarrieta XIII. Lehiaketa**, irakaskuntza ertainetako Euskal Herriko ikasleei zuzendua. Gaia: "Amets bat eraikiz". Lanak bidaltzeko epea: 1999ko maiatzaren 17a. Argibideak: 943 79 31 32.

▶ **"Dana lanbrotute ikustot"**, Mitxel Sarasketaren omenezko argazki lehiaketa. Lanak azaroaren 28ra arte jasoko dira Eibarko Arrate Kultur Elkartean (Zuloagatarren kalea 3).

# DEIAK

▶ **Deba Garaiko DYA**k, bere urteroko diru eskaera

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
Irala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

BUNKY
ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • *eta abar*
Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

Biko
BOKATEGIA
Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19

egingo du azaroaren 7 eta 8an. Helburu nagusia urteko aurrekontuari (1.655.000 pezeta) aurre egiteko dirua jasotzea da. DYAk, aldez aurretik, guztien laguntza eskertu nahi du.

▶ **AEK eguna** domekan, hilak 8, Legution. Autobus txartelak 1.000 pezetan salgai Akulu euskaltegian.

▶ **Gorla Alpinok eta Pol-Pol** taldeak Otiñano-Kodes-Kampezu egun guztirako mendi irteera iragarri dute azaroaren 15erako. Irteera goizeko 7:30etan egingo da Frontoitik. Autobus eta bazkari txartelak (3.000 pezeta) Pol-Polen. 943 76 48 51.

▶ **Jubilatuei zuzendutako egonaldiak** bainuetxeetan edo Mediterranioan azaroan. Era berean, Donostiako La Perla bainuetxera joateko irteerak. Argibideak: 943 76 21 40.

▶ **Joseba Jaka II. Literatur Bekak**, euskaraz sortutako olerki, eleberri, saiakera edota gazte-literatur lanei zuzenduta. Argibideak: 943 21 94 27.

## OHARRAK

▶ **Ondasun Higiezinen Gaineko Zerga**ren (kontribuzioa) eta Ekonomi Jardueren Gaineko Zergaren erreziboak ordaintzeko borondatezko epea martitzenera arte zabalik. Argibideak udal bulegoetan.

## KINTADAK

▶ **1951**n jaiotakoen bazkaria azaroaren 14an Antxonin. Txartelak Antxonin bertan jaso daitezke 1.500 pezetaren truke.

▶ **1995/96** ikasturtean UBIn ibilitakoen afaria azaroaren 14an Antxonin. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 19:30etan. Izen-ematea (1.000 pezetako aurrerapena) Antxonin bertan.

▶ **1972**an jaiotakoen bazkaria azaroaren 14an. Izen-ematea Eusebio II tabernan domeka baino lehen.

▶ **1927**an jaiotakoen anaiarteko eguna azaroaren 15ean. Hildakoen oroimenezko meza 13:00ean Santa Marinan eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezeta) Antxonin azaroaren 10a baino lehen.

▶ **1938**an jaiotakoen anaiarteko eguna azaroaren 28an. Usondon taldeko argazkia aterako 14:15etan eta jarraian bazkaria Antxonin. Izen-ematea 943 76 35 17 (Mari Karmen Leturia), 943 76 15 36 (Mariasun Gardoki) edota 943 76 24 67 (Jose Luis Gabilondo) zenbakietan hilaren 23a baino lehen.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

**BERGARA. Novedades**

**Out of sight (Un romance muy peligroso)**
Eguakitza: 22:30
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

**Atilano presidente**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Conflicto de intereses**
Eguakitza: 22:00.

**Siempre queda el amor**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

**EIBAR. Unzaga**

**Blade**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**El hombre que susurraba a los caballos**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:00, 22:15.
Domeka: 19:00, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 22:15.

**Cuentos de hadas**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**ELORRIO. Arriola**

**Ahmed, principe Alhambra**
Domeka: 17:00.

**Arma letak 4**
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**Latino Amerika**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**AZKOITIA. Baztartxo**

**Los vengadores**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.

**Los amantes del Circulo Polar**
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

### UN ROMANCE MUY PELIGROSO

***Zuzendaria:*** *Steven Soderbergh.*
***Aktoreak:*** *George Clooney, Jeniffer Lopez, Ving Rhames.*
*Jack Foley*-k (George Clooney) izugarrizko trebezia du banketxeak lapurtzeko orduan. Hala ere, sinestezinezko lapurreta bat burutu ondoren kotxeak huts egingo dio eta poliziek espetxera bidaliko dute. Bertan bere ihesaldia gertatzera ekingo dio baina konplizetako bat *Karen Sisco* (Jennifer Lopez) ajente federala da...




### ATILANO PRESIDENTE

***Zuzendaria:*** *La Cuadrilla.*
***Aktoreak:*** *Manuel Manquiña, Ramon Barea, Laura Conejero.*
Zezen eta futbol kontuetan oinarritutako *Justino* eta *Matias juez de linea* filmeen ondoren, La Cuadrillak politikari buruzko kritika egin nahi izan du oraingoan. *Atilano Bermejo* (Manuel Manquiña) kanposantuko langile bat besterik ez da baina hainbatek gobernuko presidente izatera hel daitekeela uste dute...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

**MUJIKA**
**Jantzidenda**
Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

*Gaspar*
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a
Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

RPS: 292/98
Ψ
NARE
psikologoak
HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK
Isasi 17, 1-B EIBAR
Tf. 943 20 05 95

**Azken datuen arabera 9.000 hildako eta izugarrizko kalteak eragin ditu Mitch hurakanak Ertamerikan. Telebistako albistegiak eta egunkariak hango irudi tamalgarriez josita iritsi zaizkigu. Honduras, Nikaragua, Guatemala eta El Salvadorreko gobernuak ezinean dabiltza eta nazioarteko laguntza behar-beharrezkoa da. El Salvadorren dagoen Mikel Andueza bergararraren ikuspegia jaso dugu.**

MIKEL ANDUEZA
Dominikoa El Salvadorren

# "Mitch hurakanak Ertamerika osoan eragindako kalteak zenbaezinak dira"


Mikel Andueza bergarar dominikoa 1982tik El Salvadorren ari da lanean. Artxibo.

**G.** Zela bizi izan duzue El Salvadorren Mitch hurakanaren igarotzea?

**E.** Kalteak zenbaezinak dira. El Salvadorreko zati handi bat ur azpian geratu da eta pentsa dezakezuenez hemengo familien egoera tamalgarria da. Nahiz eta urtegietako konportak azaroaren 1ean ireki ziren, Lempa ibaitik gertu dauden komunitateak urez gainezka geratu ziren. Hainbat tokitan ibaia 20 kilometroko zabalera izatera iritsi zen. Jende askok ez zuen etxeetatik denboraz irtetzeko aukerarik izan edo ez zen irten dena galtzeko beldurrez, eta euren bizitzak arriskuan jarri zituzten. Ez ziren irten ez zutelako nora joanik, itxaropenik ez zutelako.

**G.** Kalteak zenbatzeke daude oraindik...

**E.** Ertamerikan 9.000 hildako inguru izan dira eta 22.000 lagun desagertu omen dira. Kalte materialak izugarriak dira. El Salvadorren hildakoak 300 inguru izan dira (umeak gehienak), desagertutako jende pilo bat dago eta kaltetuak 100.000tik gora izango dira denera. Herrialde honetan nekazaritza produkzio gehiena suntsitua geratu da eta horrek datozen urteetarako gosea ekarriko du. Milaka txabola hurakanak eraman ditu eta jende asko ezin izango da beraz euren jatorriko tokietara itzuli.

**G.** Zeintzuk izan dira zona kaltetuenak?

**E.** Justu euri fuerteak hasi baino egun bat lehenago Lempa baxuko zona bisitatzen egon nintzen. Nueva Esperanza eta Cooperativas La Plancha-ko komunitateak bisitatu nituen eta hango jendea eraman egin zuten bertatik. Cooperativa Nueva Morazan-en berririk ez daukagu oraingoz eta La Canoan, Siriguayon edota Ciudad Romeron ere badakigu urak metro bateko altura zuela. Guztia ibai handi bat bihurtu zen eta ura izugarrizko indarrez zetorren.

**"Nekazaritza produkzio gehiena suntsitua geratu da eta horrek datozen urteetan gosea ekarriko du. Laguntza beharrezkoa da"**

**G.** Herritarrek zelako jarrera azaldu dute hondamendiaren aurrean?

**E.** El Salvadorreko herrialdeak solidaritate handia azaldu du. Gure parrokian, esate baterako, jendeak bi egunetan bakarrik 10 tonako 4 kamioi bete ditu, janari eta erropekin, instantzia ofizialek herriari herriarentzako laguntza eskatzen dioten bitartean. Herri honek munduko herrien solidaritatearengan sinisten du eta bakarrik laguntza horrekin berregin ahal izango dituzte euren bizitzak. Mundu guztiko laguntza behar-beharrezkoa da.

**G.** Laguntza jasotzen hasi zarete dagoeneko...

**E.** Egun gutxiren barruan, jendea euren etxeetara itzultzean, atsekabea topatuko du ziurrenik, ez dute etxerik ez janaririk izango. Komunikabideak desastre honetaz ahazten direnean, dena konponduta dagoela uste du jendeak askotan. Etxebizitzak konpondu eta umeendako esnea eta bestelako elikagaiak lortzeko laguntza ekonomikoa izatea urjentea da. Hitzegiten ari naizen zona honetan beharrezkoa izango da 400 familia ingururentzat laguntza lortzea. Oscar Romero solidaritate batzordeak kontu korronte bat ireki du Bergaran (Banco Guipuzcoano-n, 0100940620 zka.) eta laguntza eman nahi dutenak horra zuzendu daitezke. Aldez aurretik, guztien laguntza eskertu nahi dugu. B

# Oztopo arkitektonikoak kentzeko bi milioi inguru onartu ditu Udalak

## Ibargarain eta Telesforo Aranzadin obrak egiteko

**Bergarako Udalak herriaren erdialdeko hainbat tokitan oztopo arkitektonikoak kentzeko beharrezko lanak egingo ditu.**

Asmoa Ibargarai kaleko bidegurutzean (Miguel Altuna institutuko sarrera nagusiaren aurrean), Telesforo Aranzadiko eskaileratan eta herriko beste hainbat puntutan oztopo arkitektonikoak kentzea da. Horretarako, 2.200.000 pezetako aurrekontua onartu da. Orain, lanak lehen bait lehen adjudikatu eta Gabonak baino lehen obrak hasi nahi dira.

Mariaje Unamuno Gizarte Ongizate Zebitzuko teknikariak BERRIGARAri adierazi dionez, "normaltasunez mugitzeko zailtasunak dituztenekin, hau da, jubilatuekin, Aspacekoekin eta abar, markatzen ditugu lehentasunak, aurrekontua mugatua baita. Honela, aurtengo aurrekontuan aurreikusi denarekin, Ibargaraiko bidegurutzean eta Telesforo Aranzadin egingo dira lanak". Urrats taberna aurreko bidegurutzean semaforoa zebra bidearen atzean dago eta legeak aurretik egon behar dela dio. Hori konpondu nahi dute. Bestalde, Telesforo Aranzadiko eskailerako malda arindu nahi dute eta Zaiazko eta Gantxegi mertzeriaren aurrean ere arranpa bat jarriko dute.


Telesforo Aranzadin eskailerak ekiditeko arranpak jarriko dira.

**Datorren urtean diru gehiago?**

Alvaro Esparza Gizarte Ongizateko zinegotziaren asmoa datorren urterako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko diru partida handitzea da. Honela, 3.500.000 pezeta aurreikusi ditu herriaren erdialdeko kaleetan oztopo arkitektonikoak kentzeko.

Oztopo arkitektonikoena sentsibilitate arazoa da. Erakunde publikoek gero eta garrantzia handiagoa ematen diote gai honi. Halere, izaten dira huts egiteak. Ez ulertzekoa da, esaterako, herrian zabaldu berri diren hainbat establezimendu publikotara sartzeko koskak egotea eta normaltasunez ibiltzeko zailtasunak dituztenenetzako arranparik ez egitea.

Horrelako adibide bat baino gehiago daukagu Bergaran bertan. B

## UNEDek ikasturte akademikoari hasiera ofiziala eman zion

**Bergarako UNEDek** 1998-99 ikasturte akademikoari hasiera ofiziala eman zion joan zen eguakitzean. Juan Jose Alvarez ikastetxeko zuzendariarekin batera, Koruko Aizarna Kultura Diputatua, Victoriano Gallastegi alkatea eta Jon Arrieta EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea izan ziren. Azken honek eskubide historikoei buruzko hitzaldia eman zuen. Bestalde, iaz lizentziatura bukatu zuten 54 ikasleei diploma banatu zitzaien. Migel Lakunza 70 urteko tolosarrak Historia lizentziatura hartu zuen eta bere promoziokoen izenean hitz batzuk luzatu zizkien bildutakoei. B


Iaz lizentziatura lortu zutenei diplomak banatu zitzaizkien.




Joan zen otsailean Etxaniz askatzea eskatzeko Bergarako kaleetan zehar egindako manifestazioa.

# Jose Mari Etxanizen aldeko manifestazio isila zapatuan

## Hainbat indar politiko, talde eta elkartek bat egin dute

**Jose Mari Etxaniz** askatzea eskatzeko manifestazio isila egingo da datorren zapatuan, hilak 7, eguerdiko 12:00etan San Martin plazatik irtenda. 18 urte pasa kartzelan daraman preso bergarararraren aldeko Herri Plataformak antolatu du manifestazioa eta Bergarako Udalak eta alderdi politiko, sindikatu, erakunde eta elkarte hauek bultzatu dute: EAJ, EA, HB, Zutik, ELA, LAB, Ezker Sindikala, EHNE, Elkarri, Komite Internazionalistak, Eguzki, Eki, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta beste hainbat elkarte kultural eta gastronomikok.

Jose Mari Etxaniz 1980ko Karnabal martitzenean atxilotu zuten. Harrez gero, estatuko hainbat kartzelatan eduki dute eta azken urteotan Puerto de Santa Marian (Cadiz) dago. Kondenaren hiru laurdenak beteak ditu eta indarrean dagoen legearen arabera 1995ean kaleratu behar zuten. Etxanizen sumarioan ez dago odol deliturik.

Jose Mari Askatu plataformak deia egin die herritar guztiei manifestazioan parte hartzeko. Plataformak hainbat arlotan lan egin du azken hilabete hauetan. Esaterako, aurtengo otsailean, Etxaniz askatzea eskatzeko firma bilketa egin zuten. Demokrazia garaiko lau alkateek sinatu zuten. B

## Pili Agirre aske laga dute milioi bateko fidantza ordaindu ostean

**Araba** komandoarekin lotura zuelakoan joan zen martxoan atxilotu zuten Pili Agirre bergararra aske laga zuten urriaren 23an, epaileak ezarritako 1.000.000 pezetako fidantza ordaindu ostean. Gogoratuko duzuen moduan, San Jose zubiko polizia operazioan zazpi lagun atxilotu zituzten Guardia Zibilek Bergara eta Antzuolan.

Horietatik lau, pare bat egunetara askatu zituzten eta besteak, Mikel Berasategi, Mari Karmen Irizar eta Pili Agirre espetxeratu egin zituzten. Mikel Berasategi uztail erdialdean askatu zuten, fidantzapean, eta Pili Agirre orain dela bi aste. Mari Karmen Irizar kartzelan dago oraindik.

Pili Agirreri ongi etorria egin zitzaion San Martin plazan urriaren 24an, bezperan Carabancheletik irten eta gero, eta zapatu honetan ongi-etorri afaria antolatuko du Artatsen Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Afarira joan nahi dutenek Pol-Polen eta Kortazarren har ditzakete txartelak.

ZUBIAURRE
aroztegia
- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako ateak.
- Neurrira egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar 3. 943 76 16 14
Ibargari 8. 943 76 54 73

# Errege Mintegiko teilatua berrizten hasteko zain daude

## Gipuzkoako Diputazioak eman behar du baimena

**Estatuko Ekonomia eta Hazienda Ministerioko Lurralde Ordezkaritzak Seminarioko elizako teilatuan obrak egiteko baimen-eskaera eta proiektua aurkeztu ditu udaletxean.**

Orain dela hilabete batzuk kupula berriztu zuten eta, orain, kupula inguratzen duen teilatu zatia konpondu nahi dute. Egitura indartuko dute eta teilatua berriztu. Errege Mintegia monumentu kalifikatua izendatzeko espedientea hasita dagoenez, espediente administratiboaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamendura bidali du Bergarako Udalak. Idatzia urriaren 27an jaso zuten Diputazioan eta erakunde honek obra baimena ez du eman oraindik; Udalean ez dute erantzunik jaso, behintzat. Obraren aurrekontua 16.283.949 pezetakoa da. Dena dela, baiezkoa jasotzea espero da eta lanak lehen bait lehen hasiko dira.

### Erretaula garbitu

Bestalde, Errege Mintegiko elizaren erretaula berrizteko asmoa azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Kultura Departamenduko teknikoa eta Artelekuko errestauratzailea den Xabier Martiarena, Bergarako Udalarekin harremanetan jarri da Diputazioaren asmoen berri emateko. Diputazioak Seminarioko elizaren erretaula nagusiaren eta erretaulan bertan dauden eskulturen eta pintura lanaren kontserbazio egoerari buruzko txosten sakona egin nahi du. Artelekuko teknikoak Bergaran izan ziren joan zen eguenean erretaularen egoera aztertzen. Erretaula nagusia sitsak hartuta eta zuloz beteta dago. Txostena egin ostean, Diputazioak erabaki beharko du erretaula fumigatu eta desinsektatu ala zer egin. Oraindik ez da horren inguruko erabakirik hartu, baina Udaleko iturriek Berrigarari adierazi diotenez, Diputazioak jarritako interesarengatik pentsa daiteke erretaula berriztuko dutela. B



Kupula eta honen inguruko tailatua konpontzen aritu ziren iaz Seminarioan.

## Zaharren astea astelehenetik domekara Mizpirualden

**Zaharren astea** izango da astelehenetik domekara bitartean Mizpirualde egoitzan. Astelehenean, 18:30etan, Musika Eskolako trikitixa taldea izango da; martitzenean, 17:00etan, briska, puntxo, domino eta igel txapelketak eta, ondoren, Musika Eskolako txistu taldearen emanaldia; eguaztenean, 16:30etan, txokolatada eta Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia; 19:30etan, Aritzeta abesbatza. Eguenerako, Oihulari Klown taldearen emanaldia iragarri da 17:30etarako eta, 19:00etarako, Musika Eskolako metal taldearena. Eguakitz arratsaldean, Iberdrolako Argia taldearen emanaldia izango da eta zapatuan, Kultur Zentru Extremadurarrarena. Domekan, bukatzeko, meza izango da goizeko 11:45etan; eta 13:00etan, dantzaldiak, sari banaketa eta Xamatzen emanaldia.

Urtero sasoi honetan antolatzen den zaharren astearen helburua, Mizpirualdeko bizilagunei aisialdirako jarduerak eskaintzea da.

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

ETXEBERRIA
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

**Berrigara**

342 zenbakia.
1998ko azaroaren 6a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**E.mail: berrigar@sendanet.es**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Kristina Romero.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** · **Gipuzkoako Foru Aldundia** · **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### NESKAK AGORROSINERA!

Lehengo domekan kadeteen arteko futbol partidu bat ikusten egon nintzen Agorrosinen. Eibar eta Bergarako taldeen arteko partidua zen eta jokalari guztiek joko polita erakutsi zuten. Bi taldeek harrobi bikaina dutela argi geratu zen eta poztekoa da horren jokalari gazteak hain ondo jokatzen ikustea.

Bergarako zuzendaritza ere zoriondu nahi nuke maila horretako jokalariei Agorrosingo belarrezko futbol zelaian jokatzen lagatzeagatik. Jokalariek futbol zelai handiari neurria hartzen jaon daitezen hartutako erabakia zela komentatu zidaten eta ondo deritzot. Egunen batean Agorrosinen maila altuagoko ekipoak hartu beharko dituzte eta jokalariek futbol zelaia gaztetatik ezagutzen badute askoz hobeto.

Hala ere, nesken futbol talde nagusia Ipintzan jokatzen duela jakin dut BERRIGARAtik eta diskriminazio pittin bat somatzen dut erabaki hortan. Gizonezkoen talde nagusiak Agorrosinen jokatzen badu, zergatik ez emakumeen talde handiak? Uste dut beraiek ere gustora jasoko luketela bertan jokatzeko erabakia. Alde handia dago Ipintzan edo Agorrosinen jokatzearen artean eta, zela ez, ikuslegoaren erosotasunerako ere tribuna bat izateak jende gehiago erakartzen du. Gainera, Agorrosin oso gutxi erabiltzen da eta eguraldi oneko egunetan normala izango litzateke talde nagusiak (gizonezkoena zein emakumeena, alegia) berdegunean jokatzea.

Agorrosinen jokatzeko aukera talde guztiek izan dezatela eskatu nahi nioke direktibari lerro hauen bitartez. Urtean gutxienezko partidu batzuk Agorrosinen jokatzeko aukera guztiei ematea ez legoke batere gaizki.

*(BKEko jokalari baten ama,*
*N.A.N.: 72.135.678)*

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

## Biztanlegoaren %40 inguruk gizentasun arazoak omen ditu. Zu zeu arduratzen zara pisuarekin?



**Begoña Izquierdo**

Egia esan, inoiz ez dut pisu arazorik izan, dietak bakarrik haurdunaldietan egin izan ditut. Nire ustez jendea gehiegi arduratzen da pisuaren kontuekin.



**Ignacio Bilbao**

Bueno, edadean aurrera goaz, 80 urte egin behar ditut eta saiatzen naiz pisua zaintzen. Ez dut arazo larririk izan baina komeni da pisuarekin piskat arduratzea.



**Eladio Souto**

Sekula ez dut izan pisuarekin inolako arazorik. Ez naiz kontu horrekin batere arduratzen, 20 urtetan 2 kg.ren tartean egon naiz. Oso erregularra naiz.



**Angela Urzelai**

Piskat bai, denetik jaten dut baina neurrian, tentsioarekin gorabehera handirik ez izateko. Pisuaren kontrol zehatzik ez dut egiten baina zaindu bai.



**Txomin Lete**

Pisua handiegia daukat. Bihotzekoak emanda nago eta kolesterola zaintzen ahalegintzen naiz, txerrikiak, saltsak eta horrelakoak baztertuz.



**Susana Navas**

Badakit nagoen moduan nagoela baina, egia esan, pisuak ez nau batere kezkatzen. Jendea gehiegi arduratzen da eta obsesionatuz gero arazoak etor daitezke.

■ bai, esan!

**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Pedro Jose Eguren**-ek eguenean Laudibus abesbatzak Mizpirualdeko Santa Maria Magdalena elizan emandako kontzertuaren gainean komentario bat egin nahi izan digu. Egurenen arabera kontzertua oso mailakoa izan zen: 19 kantu entzuteko aukera izan zen eta Laudibusek bere kategoria azaldu zuen. Hala ere, penagarria iruditu zitzaion horren entzule gutxi (40 inguru) biltzea. Bergarako "musikologoak" non zeuden galdetzen du. Bergaran musika talde ugari dagoela eta sarritan entzun duela auditorium baten falta. Baina eguenean jasotako erantzuna ikusita, auditoriuma zertarako jakin nahi du.

■ ikuspuntua: **alex barruso**

## *G-7an proiektua*

Munduko zazpi naziño industrializatuenen taldiak krisian daren herrixei laguntzeko eindako laguntza-fondo baten berrixa, printzipioz behintzat, ontzat emon biako giñuke. Erabaki honen arrazoia gehixau da euron influentziapian eta krisian daren herrixek sortu leizkien aldaketa ekonomikoak, solidaritate asmua baino. Hau jakinda be, egixa da baita, finantza egoera larrixan daren zenbait herrik, nahiz asiarrek, nahiz hegoamerikarrek fondo horretatik irtendako diru kopuru haundixak jasotzeko aukeria izango dabela.



Honi gehitzen badotsagu G-7ko herrixek aldebiko akordiuak ein leizkiela, lortuko giñuke XXI. mendeko ekonomiarako Nazioarteko Finantziazio Arkitektura Berria deitzen dabena: Nazioarteko Moneta Fondoa eta Munduko Bankuaz aparte, krisian daren herrixei laguntza osagarrixak eskaintzia.

Pausu hau baikorra pentsatzen jaten arren, beste kezka batzuk datoz nere burura: Bill Clintonek esan bezala proiektu honen helburua norberaren aberastasuna ziurtatzeko herri aliatuak aberastia bada, hor geratzen die, ahaztuta, ehundaka herri asiar eta afrikar kontinentia, ez G-7, ez beste herri aurreratu batzuk ez dielako eurekin akordau.

Hau hola izanik, gose, eta miserixan sarturik diren herrixendako daukagun solidaritate falta haundixak gure duintasuna zalantzan jartzen dabela ezin da ukatu.

XXI. mendeko Finantziazio Arkitektura Berria danontzako itxaropentsua izan dadin ikusten doten irtenbidia hau da: G-7ak sortu daben finantziazio-politika eta herri honenganako laguntza-neurrixak batera joan daitezela; batak bestia kendu barik. B

asteko menua: **toki ona bodegoia**

# Intxaur saltsa



BEGOÑA LETURIONDO
*Toki Ona bodegoiko sukaldaria*

**OSAGAIAK (4 lagunentzat)**

- Litro bat esne
- Kanela arrama bat
- 5 koilarakada azukre
- 300 gramo intxaur

**PRESTAKETA**

- Ontzi batean, litro bat esne, kanela arrama bat eta bost koilarakada azukre sutan ipini.
- Egosten hasten denean, 300 gramo intxaur xehetu (molido) bota eta ordubetez irakiten eduki, noizean behin bueltak emanez.
- Hozten laga eta mahaira atera aurretik hozkailuan eduki.

adituen esanetan

# Laserrezko tratamendua

JON LARRAÑAGA, *optikoa*

Laserra potentzia edo energia sistema bat da eta erabilpen zabala dauka bai industrian eta bai medikuntzan ere. Medikuntzan esaterako miopia, astigmatismoa edota hipermetropia zuzentzeko erabiltzen da eta erantzun onena 3-8 bitarteko dioptria dutenekin izaten da. Lehengo “queratotomia radial” izeneko tratamenduarekin kornean egiten zen ebakia edo deformazioa nabariagoa izaten zen. Laserrarekin molekulak apurtu, desestrukturatu egiten dira eta horrela defektu dioptrikoa edo errefraktiboa zuzentzeko aukera dago. Zirujia aldetik oso emaitza onak lortzen dira. Operazio sinplea da gainera, hamar bat minututan egiten dena. Ez dakigu epe luzera begiaren tejidoa mugituko den, lehen bezala geratuko den baina hasierako emaitzak bikainak dira behinik behin. Jendearen aldetik eskaera asko izan dira tratamendu hau jasotzeko, nahiz eta nahiko garestia den. Esan bezala sistema konputerizatua denez (oso makineria garestia erabiltzen da), oso zehatza da.

Laserraren barruan sistema ezberdinak dira baina beharbada laser exzimer-ra eta laser lasik-a dira gehien erabiltzen direnak. Laser lasik delakoarekin azaleko epiletoa moztu eta buelta moduko bat ematen zaio geruzari, laserra bertan aplikatuz. Laserra begietako bestelako gaitzetan ere erabiltzen da: “desprendimiento de retina” edota diabetesak eragindako kasuetan. B

bergarako gordailutik

## FORUEN GARAIKO ESKUBIDE BAT

**Imanol Sorondo**

Hemengo ohituren eta legeen aurkako aginduak “bueltan” bidaltzeko eskubidea zegoen Foruen garaian. Bergaran badago eskubide horren adierazpena, XVIII. mendeko bukaeran Konbentzioko gerraren garaikoa, hain zuzen. Erdarazko idatzietan “uso” eta “pase foral” izenarekin azaltzen zen eta “le damos uso” eta “le denegamos nuestro uso”rekin bide ematen zioten edo ukatu. Etortzen zen legeari bide emateko edo ukatzeko eskubidea, alegia.

*Valladolideko Aginte Kontseilutik etorri ziren lege batzuk 1793an, Konbentzioko gerrarako prestatzen ari zirenean*

Horrela, Valladolideko Aginte Kontseilutik etorri ziren lege batzuk 1793an, Konbentzioko gerrarako prestatzen ari zirenean. Lehengoa, espetxean zeudenean askatasunari buruz, gudari egiteko erabakiekin; bigarrena, ostatuetan, tabernetan eta abar, batez ere toki bakartienetan, bertara oheratzen zirenen zerrenda egunero eramatekoa. Bi lege hauei Gipuzkoako Batzar Nagusiak “eman zien bide”.

Hirugarrenari, berriz, “ez zion biderik eman”, hau da, gure kaietara sartu ziren frantses batzuei ostatu eman, eta eskaini behar zitzaien begiruneari buruz etorri zen aginduari ukatu egin zion bidea eta “bueltan” bidali.

Foruen garaiko eskubidea zen eta, ikusi daitekeenez, garrantzi handikoa. B

# Hiru kantoreri omenaldia



JUAN IDIGORAS

Parrokietako koroan hainbat urte daramatzaten **Jesus Berroyak, Inazio Madinabeitiak eta Roman Mujikak** omenaldia jasoko dute domekan 11:00etan San Pedron ospatuko den meza ostean. Txikitatik, parrokietako elizkizun guztietan murgilduta egon dira eta oraindik meza nagusiak edota hileta elizkizunak euren ahots ederrekin laguntzen dituzte. **Domekan** esfortzu horren errekonozimendua jasoko dute eta, dudarik gabe, Eliza beterik ikustea izango litzateke omenduendako pozgarriena. Hirurek opari bana eskuratuko dute eta ondorengo bazkarian, Antxonin, 50 lagun inguru bilduko direla espero da. Zorionak!!

# *Urrezko ezteiak*



***Edurne Labordak eta Angel Agirrek*** *ezkondu zireneko urrezko ezteiak bete zituzten joan zen urriaren 25ean. Hori ospatzeko, meza izan zuten Monja Zaharretan eta ondoren senideekin bazkaltzeko elkartu ziren Soraluze jatetxean, Arantzazura bidean. Guztiek primerako eguna igaro zuten eta Angel eta Edurne, normala denez, pozaren pozez... Euren familiak argazki hau bidali digu berriz ere bikotea zoriontzeko, bihotz-bihotzez.*



FELIX URIARTE

# Jubilatuak Gernikan

Urtero moduan, urriko azken astelehenean, San Joxepeko jubilatuek **Gernikako feriara** irteera egin zuten. Goizean **45 bat lagun** abiatu ziren autobusez Gernikara eta feria bisitatu ondoren, Murgan egin zuten bazkaria. Eguraldiarekin ere zortea izan zuten eta bazkalostean Bilbora bisita egin zuten jubilatuek. Beti bezala, umore onean, primerako eguna igaro zuten.

# Kultur Hamabostaldiaren amaiera

Zapatuan Antzuola eta **Bergarako jubilatuek antolatutako II. Kultur Hamabostaldiari amaiera** eman zitzaion. Eguerdian Miguel Altuna institutoan egindako ekitaldian Tomasa Zabaleta San Joxepeko presidenteak jubilatuen zein bestelako kolektiboen aldetik, hamabostaldiak izan duen harrera bikaina azpimarratu zuen. Datorren urteko udazkenean ere hamabostaldiaren hirugarren edizioa antolatzeko animatu zituen bildutako guztiak. Hamabostaldiari amaiera emateko **150 lagun** bildu ziren Udal Biltegian egindako herri bazkarian. Hurrengo urtera arte!!




HAURREN AHOTSA unicef
Azaroak 21
Zure seme-alabek zeregin garrantzitsua izango dute.
1 Nortasuna
Naizen moduan errespetatua izateko eskubidea, nire nortasuna garatzekoa, nire sinesmen eta tradizioen arabera bizitzekoa.
2 Familia
Maite eta orientatzen nauen familia batean bizitzeko eskubidea, gurasoekin batera jarduerak burutu eta haiengandik bereiztua ez izatekoa, nire ongizaterako beharrezkoa ez bada behintzat.
3 Osasuna
Zainketa medikuak izateko eta bizitza-aztura osasungarriak garatzeko eskubidea, drogetatik libre eta kutsatu gabeko leku atsegin batean bizitzekoa.
4 Hezkuntza
Besteekin batera bizitzen ikasteko eta hobea izateko hezkuntzarako eskubidea, zoriontsu naizen eta ikasteko gogoz joaten naizen eskola bat izatekoa.
5 Jolasa
Jolasteko denbora, lekuak eta jolaskideak izateko eskubidea.
6 Berdintasuna
Diskriminatua ez izatekoa eskubidea eta trataera eta atentzio bereziak jasotzekoa, behar izanez gero.
7 Babesa
Nire gorputza eta nire sentimenduak mindu ez diezazkidaten eskubidea, tratu txarrik, laidorik, edota sexuabusurik ez izatekoa, zapaldua ez izatekoa.
8 Partehartzea
Informazio egokia jasotzeko eskubidea, beste haur batzuekin bildu eta parte hartzekoa, eta nire iritziak aintzat hartuak izan daitezen.
9 Ongizatea
Nire gurasoek ni duintasunez garatu eta bizitzeko behar besteko baliabideak eskuratu ahal izateko eskubidea.
10 Bakea
Indarkeriarik gabeko gizarte baketsu batean bizitzeko eskubidea, elkartasuna, tolerantzia eta adiskidetasuneko izpiritu batean hezitzekoa.
11 Haurrak aurretik
Erabakiak haurren premietan oinarrituta har daitezen eskubidea.
12 Elkartasuna
Herriek munduko haur guztien garapenean lagun dezaten eskubidea.
Haurrek beren eskubideak aukeratuko dituzte. Bozkatu!
unicef


INDO IVS
Lente Progresiboak Erosterakoan
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a
Edonola begiratuta ere, INDO IVS lente progresiboak erosoenak dira begi nekatuentzat, izan ere, ez baitituzu betaurrekoak aldatu behar izango edozein distantziatara ikusteko. Eta orain askoz ere gehiago eskaintzen dizugu.
Azaroaren 30era arte, National Geographicen eskutik paisaje eta kultura berriak aurkitzera gonbidatzen zaitu MutltiOpticasek.
MultiOpticasek National Geographic aldizkariaren urtebeteko harpidetza oparitzen dizu.
NATIONAL GEOGRAPHIC
LORTU EZAZU MULTIOPTICAS-en «TRAVEL CLUB» PROGRAMAKO PUNTUAK.
TRAVEL CLUB Comprar y Disfrutar
ORDAIN EZAZU HIRU HILABETETAN ETA INOLAKO GAINKARGURIK GABE.
LARRAÑAGA
Ibargarai, 16
Tel. 943761575
BERGARA
J. Carlos Guerra, 1
Tel. 943792995
ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp
Tel. 943889988
ORDIZIA
EIBAR
Bidebarrieta, 2
Tel. 943200522
EIBAR
ERRENTERIA
Pl. de la Esmaltería, 7
Tel. 943517811
ERRENTERIA
R.P.S. Nº 421/96

kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Kristina Romero **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 25 zenbakia. 1998ko azaroaren 6a.*

# Oinezkoendako pasabidea

## Pasealekuaz gain, argia eta ura sartuko dira Etxezuritik Ariztiraino

**Azaroaren erdialdera hasiko dira oinezkoen bidea egiten. Joan zen urriaren 6ko udalbatzarrean onartu zen pasealekuko obra kontratatzea. Orain lanak hastea baino ez da gelditzen.**



Asko dira Etxezuritik Ariztirainoko bidea oinez egiten duten antzuolarrak. Etxera joateko edo Matz-Errekara lanera joateko, bide bazterretik joan beharra izaten dute. Baina azkenengo udalbatzarrean oinezkoendako pasealekua egitea erabaki zen. Hori dela eta, azaroaren erdialdera hasiko dira lanak. Valen Moñux aparejadoreak adierazi digunez, "paselakuak bi metroko zabalera izango du eta argiteria publikoa ere jarriko da". Bi hilabeteko lanen ondoren, 300 metroko ibilbide hori lasai egiteko aukera izango dute oinezkoek.

**Ura ere bai**

Herriko hainbat baserritan gertatzen den bezala, Uzarragan ere ez dute herriko urik. Euren etxeetan mendiko ura hartzen dute. Valen Moñuxek azaldu digunez "lana hiru zatitan egingo da. Batetik, obra zibila egingo da, hau da, oinezkoendako pasealekua; bestetik, argiteria publikoa jarriko da, hainbat farola jarriko dira, gauez ere jende asko ibiltzen da eta bide horretan; eta azkenik, ura sartzeko lanak egingo dira. Ura baserrietara iristeaz gain, Matz-Errekara ere helduko litzateke, orain gertatzen ez den bezala. Dena den, urarena oraindik ikusteko dago. Tutuak sartzen baldin badira baserritarrek etxean herriko ura jasotzeko izango da, baina Udalak obrak egin eta gero baserrietara ez badute urik sartzen, alferreko den lana izango da, beraz hori ere aztertu egin beharko da".

**Aurrekontua**

Bi metroko zabalera izango duen oinezkoen pasealekua egiteko Udalak 17 milioiko aurrekontua aurreikusi du. Ibilbidea 300 bat metrokoa izango da eta bide bazterreko ortuetatik joango da. Lur sail horien jabeek pasealekua egiteko behar den lur zatia emango diote Udalari, ezeren truke.

Honela pasabidea bide bazterretik pixka bat aldentzeko aukera izango du Udalak.



*Ortu hauetatik egingo da pasealekua.*

Pasealekuak bi metro zabal izango ditu eta argiteria publikoa ere jarriko da

## Jone Larrañaga *Antzuolako hizkera* liburuaren egilea

# *“Zaharren euskeriak eta umiena*

**Jone Larrañagak azaroaren 22an aurkeztuko du “Antzuolako hizkera” liburua herrian. Antzuola Herria ikerketa bekari esker burutu duen lan mardul honetan, Jonek herriko euskararen ikerketa eta deskripzioa egin ditu.**



**Zergatik erabaki zenuen Antzuolako euskarari buruzko azterketa hau egitea?**

Euskal Filologia ikisi neban eta beti gustatu izen jat euskeria. Etxian beti ibiltzen nitzan amamari eta esaten zittuen bitxikeixak apuntatzen. Antzuola Herria ikerketa beka irten zanian esan neban “hau da aukeria geure herriko euskeria gehixago ezagutzeko eta gehixago lantzeko” eta holaxe izen zan.

**Zela eraman duzu aurrera azterketa lana?**

Lehenengo hasi nitzan alkarrizketak egitten. 28 bat lagun izen die informantiak, normalian jende edadetua, poliki-poliki aukeratzen jun eta 12 bat edo izen die bene-benetako lekuko edo informantiak.

Era guztietako alkarrizketak egin dittut eta ordu pilla bat pasatu dittut eurekin. Danera 100 bat zinta batu dittut eta horrek transkribatu (papelera pasatu) eta gero informaziño hori sailkatu egin dot: pronunziaziñua, berbak, esaera zaharrak, deklinabidia, aditzak... eta gero hori landu.



*Bi urte eman ditu Jonek lanarekin.*

> “Eztogu euki bihar iñungo lotsarik gure euskeria egitteko”

**Elkarrizketak helburu jakin batzuekin antolatu zenituen?**

Alkarrizketatu batzuk enittuan hainbeste ezagutzen eta lehenengo konfiantzia emoten notsen, ze askok pentsatzen dau euren euskeria eztala ona eta hori ezta egixa. Grabaziñuak bi eratakuak izen die: batzuk oso jeneralak (lanbide zaharrak, lehengo bodak, komuniuak, gonbidautzak...) eta beste batzuk zehatz-zehatzak, esate baterako, aditza lantzeko baldin bazan, galdera danak aditzaren inguruan zien.

**Kontu asko entzun dituzu beraz?**

Bai eta konturatu naiz oso gutxi ezagutzen dittugula gure zaharrak. Eztittugu ezagutzen ez gure zaharrak, ez euren bizimodua, ez gure herrixa, ezta gure historixia be. Lanak balio izen dost pasadizuak, bitxikerixak eta antzerakuak jakitteko, baiña batez be konturatzeko eztogula ezagutzen gure herrixa eta gure zuztarrak. Lanaren onena eta aberasgarrixena, duda barik, herriko zaharrekin izendako elkarrizketak eta erakutsi dostena izen da.

**Zein ondorio atera duzu herriko euskalkiari buruz?**

Gure zaharren euskeriak eta guriak edo gure ondorenguenak, eztaukela zerikusirik; aldaketa haundixa dago.

Nik bi ondorixo aittatuko nittuzke: batetik, euskera batuaren eragiña ikaragarrixa da eta ume askok Antzuolako hizkeriaren ezaugarri nagusixenak eta normalenak pe eztittue erabiltzen. Eta, bestetik, euskeriaren pobretzia. Eztaukagu errekurtsorik berba asko, espresiñuak edo gauza asko esateko eta askotan erderara joten dogu, euskeraz zela esan eztakigulako.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •



Zabalo Iturgintza S.L. Bidea eginez
Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73
•Gasa
•Berogailuak
•Haize egokitua
•Enpresen mantenimendua
•Lurrun instalazioak
•Bero-aurreztea
•Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAren bidez
•Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

# ztauke zerikusirik"

**Ze ezaugarri dira umeak eta esaten ez dituztenak?**

Ejenpluak arlo danetan dare. Esaterako, "laga"ren partez, "utzi" esaten dabe edo "amandako" esan biharrian "amantzat" esaten dabe. Euskera batuan "e"z bukatzen dien berbak Antzuolan "a"z esaten die (lore, lora; erle, erla...), baiña ume askok galduta dauke. Edo "ez" baten ondorengo kontsonantiak aldaketa dauke: "ez da etorri, ezta etorri" edo " ez naiz, enaiz"... hori gero eta gutxiago esaten da. Antzuolako umiak idazten dan moduan esaten dabe, eta oso diferentia da idaztia eta berba egittia, eta hori beti bereiztu bihar da.

**Horrez gain, zer ikasi duzu?**

Antzuolako euskeriak balixo haundixa daukala, oso gune estrategikuan garelako. Gipuzkerarekin muga-mugan gare, eta horrek bizkaieriaren ezaugarri batzuk galdu eragin dosku eta, aldi berian, gipuzkeriaren eragintxua daukagu.

**Nola banatu duzu liburua?**

Liburuak bi zati dauzka, batetik pronunziaziñua, izenaren morfologia, aditza eta sintaxia eta bestetik, berbak, esamoldiak, esaera zaharrak, lehenagoko kontuak, kantuak...

Lan honetan burruka haundixena izen da Antzuolako jendiak ulertzeko lan bat egittia eta baitta hizkuntza maillan, linguistendako eta horretan dabitzenendako balixogarrixa izetia. Oreka hori topatu nahixan ibilli naiz beti.

**Norendako da zure liburua?**

Uste dot euskeraz egitten daben edozein antzuolarrendako dala interesantia, ez bakarrik linguista edo euskeria lantzen dabitzenendako, bestela frakaso haundixa litzake. Lehenengo interesauak geu izen biharko giñake, geure herrixa eta geure euskeria hobeto ezagutzeko; badakizu, "euskeria gehixao ezagutuz, gehixao maittatuko dogu".

Gure euskeria ezta Tolosakua edo Urretxukua baiño zatarragua, ezta gutxiago be. Bestiak bezain duiña eta ona da guria. Askotan eztogu baloratzen bihar dan moduan, eta kanpoko batekin berbetan hasten ganian euskera batu modukua egitten saiatzen gara. Baiña, ze gertatzen da? Ba, euskera batu moduko hori eztogula geuria bezain ondo menperatzen, eztaukagulako erreztasunik, eta okerrago egitten dogula. Nere ustez, askoz hobe da geurian berba egittia errekurtso gehixago dauzkagulako eta horrek askoz aberatsagua egitten dabelako. Eztogu euki bihar iñungo lotsarik gure euskeria egitteko.

> "Eztogu ezagutzen ez gure herrixa, ez gure zaharrak, ezta gure historixia be"

**Zer antolatu duzue liburuaren aurkezpenerako?**

Aurkezpenaren astian, eta pixka bat girotzeko, herri euskalkixen bi hitzaldi izengo die. Bat azaruaren 17xan, martitzena, 19:30etan udaletxian, eta bestia 19xan, eguena, hori be 19:30etan, udaletxian. Martitzenian Gotzon Garate etorriko da, esaera zaharretan dakixena eta Deustuko Unibertsitateko irakaslia dana. Bere ustez, ezta euskaldun osua esaera zahar errezenak pe euskeraz esateko gauza eztana, eta horren inguruan berba egingo dau. Beste alde batetik, esaera zaharretan zelako Euskal Herrixa agertzen dan be azalduko dau. Eguenian, berriz, Koldo Zuazo dialektologian aditua eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasliaren hitzaldixa izengo da. Berak esaten dau euskeriak iraungo badau herriko euskerak landu eta bultzatu bihar diela; euskalkixak noiz, nun eta zela erabilli bihar dien azalduko dau.




*Santa Zezilia egunean aurkeztuko da liburua.*


LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •



# Antzuolarrak Aiherrara

Azaroaren 15ean, domekan, Aiherrara irteera egingo da Antzuolatik. Senidetze eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Aiherrakoek. 10:30 Aiherrara iritsiko da autobusa eta luntxa egongo da. Gero, Aiherrerako bi aeronautikako enpresetara bisita eta bazkal ostean, Urruñako txarangak alaituko du arratsaldea. Antzuolako Udalak autobusa jarriko du. Izen ematea, azaroaren 11a baino lehen Udaletxean. Dohainik izango da eta 08:30etan aterako da plazatik.

## Tortila lehiaketa

Aurten ere herriko neska-mutikoek tortila lehiaketa egingo dute. Lehiaketa azaroaren 7an, zapatuan izango da Herriko plazan. Herriko eskolako 5. eta 6. mailakoak eta Bergaran dabiltzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 1. eta 2. mailako neska-mutikoak arituko dira tortila goxoak gertatzen. Lehiaketa arratsaldeko 17:00etan izango da.

## Gaztainerre jana

Jubilatuek gaztainerre jana antolatu dute azaroaren 12rako. Egun horretan, eguena, arratsaldeko 19:00etan izango dute herriko jubilatuek aurtengo gaztainak dastatzeko aukera.

## Antzerki saioa

Goaz antzerki talde debarrak "Geure buruai kuku" antzezlana aurkeztuko du zinean. Antzezlan honetan Debako taldeak, lau sketchen bidez, euskaldunen irudi barregarria agerian lagatzen dute. Antzerki saioa azaroaren 14an, zapatuan, izango da, gaueko 22:30etan.

## Behobia-Donostia

Hogei antzuolar arituko dira Behobia-Donostia lasterketan domekan. Korrikalarien artean aipatzekoa da Bizkai, Juan Jose Aranburu, Eltzikorta, Patxi eta Karmen ere izango direla. Horrela nahi izan dute euren lagunek presoekin elkartasuna adierazteko eta denboren zerrendan bost presoen izenak agertuko dira. Autobusa 08:00etan irtengo da Herriko plazatik.





## Santionekoak Arinenean

Joan zen eguakitzean Agustin, Angeles eta Ines Arin, Martina Larrañaga, Pilar Belastegi, Josefina Garrastazu eta Andoni Rodriguez Santionian afaltzen izan ziren. 1990ean laga zuten jatetxea eta berriz ireki denetik lehenengo aldiz joan ziren bertara afaltzera. Jakin dugunez, txuletak probatzeko aukera ere izan zuten euretako batzuk. Konparatze aldera, edo?

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

LEKU-BERRI MERENDEROA
Janariak eta edariak
Tf. 943 76 60 94

igor eta Txomin
Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.
ANTZUOLA ☎ 943 76 60 39
BERGARA ☎ 943 76 19 98

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40



**Bere 48. urtebetezearekin bat etorriz, Alberto Arruti "Azur"ek argazki erakusketa zabaldu zuen joan zen zapatuan Pol-Poleko erakusketa aretoan. "Euskal txokoak" izenburupean, Euskal Herriko paisaiak eta herriko irudiak bildu ditu "Azur"ek. Bere lehendabiziko erakusketa aitzakitzat hartuz, argazkigintzaz eta bestelako kontuez berriketan izan gara berarekin.**

## Alberto Arruti, "Azur"

# *"Argazki bilduma propioa errejistratzeko asmoa daukat"*

Zelako lanak dira ikusgai jarri dituzunak?

**E.** Aspalditik argazkiekin buru-belarri ari naiz. Beti kamara gainean eramaten dut eta izugarri gustatzen zait argazkigintza. Etxean 2.000 argazkitik gora daukat eta 100 bat roilo errebelatzeko oraindik... Erakusketan, Euskal Herrian zehar ateratako argazkiak jarri ditut, Bergaran, kostaldean eta beste hainbat tokitan ateratakoak. Eskura neuzkanak aukeratu ditut erakusketarako eta ondoren argazki bakoitzaren laser kopiak atera ditut, saltzeko asmoarekin. Egiten ditudan argazkien postalak eta posterrak saltzen ibiltzen naiz. "Euskal txokoak" izenburuarekin, argazki bilduma propioa errejistratzeko asmoa daukat. Ea jendeak erosten dituen...

**G.** Nork animatu zaitu zure lanak erakustera?

**E.** Inork ez, norbera hasi behar da horrelako gauzak egiten. Badakizue lehen nola ibiltzen nintzen... eta ez bazara altxatzen zapaldu egiten zaituzte. Orain, berriz, hobeto nabil, enerjiarekin eta merezi duen zerbait egiten ari naizela uste dut. 20 kilometroko erradioan duguna ere ez dugu ezagutzen eta Euskadigaitik dena eman nahi dut, telebistan egiten den kultura baino nahiago dut nik egiten dudana, Euskadiko txokoak ezagutzera eman hain zuzen. Gainera, argazkiak ateraz komunikazioa lantzen da; jendea ezagutzen duzu... Alboan euskara dakien norbait falta zait bakarrik eta neska bada, askoz hobeto.

**G.** Lagunek eta ezagunek zer komentatu dizute erakusketaren gainean?

**E.** Ez zait inor etorri. Ez dago ezer esateko. Erakusketa egitea, hori da garrantzitsuena. Ez naiz inoren menpe bizi. Pentsa, niri buruz gaizki hitzegin duten guztiei kaso egin izan banie... Nahiago dut paso egitea. Baina denetik ikasten da. Ni normalean ez naiz haserretzen eta haserretzekotan nahiago izaten dut gauzak konpontzea.

**G.** Aurrerantzean beste erakusketaren bat egiteko asmorik badaukazu?

**E.** Egunen batean fotografia etilikoaren erakusketaren bat egingo dut.



"Azur"ek esan digunez, beti eramaten du argazki kamara aldean. San Lorentzon daukan etxean 2.000 argazkitik gora omen dauzka eta "Euskal txokoak" bildumari jarraipena emateko asmoa du. Pol-Polen ikusgai jarri dituen argazkien kopiak salgai jarri ditu.

Mozkortuta atera izan ditudan argazkiak erakutsiko ditut, kritikoak eliminatzeko. Hitzegin baino lehen nik harrapatu nuen mozkorra harrapatzeko esango diet. Errepikaezinak diren argazki batzuk aukeratuta dauzkat...

Momentuz "Euskal txokoak" bildumarekin jarraitu nahi dut. Iparraldetik Gorbearaino ibilita nago argazkiak ateratzen eta orain Bardenetara joateko asmoa daukat, bertan diren landereei erretratuak egiteko eta gutxika-gutxika Euskadi berreskuratzen joateko. Itoizera ere joan nahi dut...

Etorkizunean nire amarekin erakusketa bat egitea ere gustatuko litzaidake, berak oleoak margotzen ditu eta. Nire argazkiei markoa jarriko diet, markoak neuk lantzen ditut eta, artisau-lanak egitea gustatu izan zait betitik.

**G.** Ofizio askotan lanean izan zarela entzun dugu...

**E.** Nire burua eskulangiletzat daukat baina ia denetik egin dut. Ofizio mordo bat izan dut eta horrela ikasten da... Oso jende gutxik daki 15 urterekin arrantzale ibili nintzela Donostian; marmoldegi batean lanean ere bai, hildakoen lapidetan grabatuak eginez, hori da gehien gustatzen zitzaidana. Kanposantuko panteoietan, hor dago nire lana. Eta ez dago gaizki joan direnengatik zertxobait egitea... Garai hartan soldaduskan nengoen eta desertatu egin nuen. Bueno, etxera etorri nintzen han sei hilabete egin ondoren. Handik 15 egunera goardia zibila etorri zitzaidan eta ziegan bi hilabete eman nituen. Pentsa, orduan inork ez zuen desertatzen eta zorotzat eta alferrikakotzat hartu ninduten. Azken batean, soldaduskan urte t´erdi egin beharrean zortzi hilabete egon eta etxera bueltatu nintzen. Teilatuetan ere uralita jartzen lanean egon nintzen, zinturoirik gabe baina azkar ihes egin nuen handik... Gehienbat eskuekin eta buruarekin lan egitea gustatzen zait. Buruari ere eman behar zaio, eh?

**G.** Kandelak saltzen ere ibilitakoa zara...

**E.** Bai, lehen kandelak egiten nituen baina laga egin nuen birikietarako eta ingurugiroráko kaltegarriak direlako, petroleo, parafina hutsa dira eta. Ekolojistak izateko beharra daukagu, izorratu dugun guztia nolabait berrizteko konpromezua hartzea derrigorrezkoa zaigu.

Franco hil zenean Bartzelonan nengoen kandelak saltzen eta egun hartan Ikurriña ikusgai jarri nuen Rambletan. Orduko "Punto y Hora" aldizkarian atera ninduten eta handik hona etortzea erabaki nuen. Ordutik ez naiz Bergaratik mugidu.

**G.** Bizitzak ondo tratatu zaitu?

**E.** Ni ez naiz kexatzen. Gauza guztiek bere alde positiboa eta negatiboa daukate baina gauza negatiboetatik ere ikasten da. Ni gustora nago eta ez naiz ezertaz damutzen. Majia urrunetik datorrela esaten dute baina norberak bitartekari lanak egiten ditu askotan... Mozkortuta egotea ere positiboa izan daiteke. Panerok esaten duen moduan, zurruta egia da eta fermentazio natura-







***"Aspaldian hobeto nabil, enerjiarekin, eta merezi duen zerbait egiten ari naizela uste dut. Telebistan egiten den kultura baino nahiago dut nik egiten dudana, Euskal Herria ezagutzera ematea"***

lari buruz ari da. Zurruta naturalarekin hitzegiten duzunean egia esaten duzu, bestela nekezagoa izaten da egia esatea... Dena den ez edaten ahalegintzen naiz eta aspaldian hobeto nabil. Etxean daukagun ortuari, postalei eta jasotzen dudan minusbalia pentsioari esker nahiko ondo bizi naiz.

**G.** Zein harreman daukazu Panerorekin?

**E.** Kanarietan egon arren, berarekin harremanetan jarraitzen dut. Egunen batean ni kitarrarekin eta bera bere kontuekin, biok elkarrekin zertxobait egiteko berba eginda daukagu. Ez dago ezer planifikatzerik, hobe da gauzak





***"Bizitzak ondo tratatu al nauen? Ez naiz kexatzen. Gauza guztiek bere alde positiboa eta negatiboa daukate baina gauza negatiboetatik ere ikasten da. Ni gustora nago eta ez naiz ezertaz damutzen"***

martxan egitea, gogoa baldin badaukagu egin eta kitto. Santa Agedatik ihes egin zuenean Diario Vascoari artikulua saldu zion eta lortutako diruarekin Kanarietara joan zen. Badakit han dagoela eta horrekin nahikoa zait.

**G.** Pertsona xelebretatzat daukazu zure burua?

**E.** Piskat bai, saltzen ditudan marihuana postalengandik igual...

**G.** Garai batean, gaztetan, Clan V musika taldean ere ibili zinen. Zela gogoratzen dituzu urte haiek?

**E.** Dena baliagarria da, bere alde on eta txarrekin. Bost bat urtez ibili ginen elkarrekin joten. Patxangadak joten genituen, berbenetan, ezkontzetan... Orduan baxua jotzen nuen eta ondoren kitarra eta armonika jotzen ibilia naiz. 1970 urtearen inguruan, Donostiako jazz jaialdian, "jazz free" emanaldiak izaten ziren Trinitate plazan eta musiko batzuk elkartu eta orduan inprobisatzen genuen. Ni armonikarekin aritzen nintzen orduan eta parean tokatzen zitzaizun musikoekin jotzen zenuen... Valladoliden ere bertako ikasleei orduerdiko kitarra akustiko emanaldiak eskeintzen ere ibilita nago. Orain eskuin eskuan minusbaliotasun bat daukat eta ez dut kitarra jotzen. Armonika jotzeko ere biriki onak behar dira... Haginak galdu ditut baina oraindik badaukat nortasun agiria [sudurra seinalatuz]...

**G.** Orain, kulturari dagokionez, zela ikusten duzu Bergara?

**E.** Askoz hobeto gure gazte denboran baino. Lehen ez geneukan mugitzeko aukerarik ere, euskaraz ere berbarik ezin zen egin. Orain jendeak ardura gehiago duela uste dut eta hori ondo dago. Hauteskundeetan ere ikusi da gazteriak botoa eman duela eta horrek burua ez dietela jaten esan nahi du. Gazteria da mugitu behar dena, azken batean bizitza beraiena da. Jende heldua ez da honez gero aldatzen hasiko...

Goiko argazkian, Alberto Arruti "Azur" Pol-Poleko aretoan jarri duen argazkietako baten ondoan. Ezkerrean, "Euskal txokoak" bilduman jasotako San Martzialeko irudi bat.

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**Zapatuan kanpoan**

| | |
|---|---|
| **16:00:** Agirrebeña Jatetxea-Ari Ari | **OH Zerezos** |
| **17:00:** Jauja OH Zerezos-Shaktale | **Pagomendi** |
| **18:00:** Pagomendi-Mongatxurrak | **Shaktale** |
| **19:00:** Irubide Jatetxea-Ion Autoak | **Mongatx.** |

**Domekan barruan**

| | |
|---|---|
| **09:30:** A Ze Flaxa Etxagi-Errotagain | **Canalejas** |
| **10:30:** Bar Canalejas-Azpeitxi jatetxea | **Errotagain** |
| **16:00:** Tom Cat Argandolas-Agiñaspi | **Buya** |
| **17:00:** Buya-HHH | **U. Bikoitza** |
| **18:00:** Uve Bikoitza-Moskis | **Jakina PT** |
| **19:00:** Jakina PT-Matxakategi | **Patatus** |
| **20:00:** Patatus-Mozkibar | **Matxakat.** |

**Domekan kanpoan**

| | |
|---|---|
| **16:00:** FAC-La Juve | **SLP** |
| **17:00:** SLP-Artusamak | **La Juve** |
| **18:00:** Xurrupak-Mo(ko)lotov | **Artusamak** |

## argi!

### Seriotasun eskasa epaile-lanetan

Antolaketa Batzordeak zera eman nahi du jakitera: alde batetik, apuntatzeko mahaiak ez direla epaileak bertan jarri daitezen. Epaileek zutik eta gertutik jarraitu behar dute jokoa, horretarako baitaude. Bestalde, taldeei epaile lanak egiteko orduan interes handiagoa jarri behar dela gogorarazi nahi die.

### Helburua ondo pasatzea da

Bestalde, txapelketa jendea ondo pasatzeko eta kirola egiteko antolatzen dela argitu nahi du Antolaketa Batzordeak, eta ez jokalarien artean liskarrak bultzatzeko eta lesioak sortzeko.

## jokoz kanpo



**FERNANDO DIAZ**
**Ari Ari**

**G.** Nola joan dira orain arteko partiduak?
**E.** Nahiko petral. Sei partiduetatik bi irabazi ditugu, gainontzekoak galdu egin ditugu. Ez gaude kezkatuta taularen erdian geratzea nahikoa baita guretzat. Bigarren bueltan, taldeak zehaztuta daudenean seriotasun handiagoz jokatuko dugu.
**G.** Zure taldeari falta zaion zerbait?
**E.** Egonkortasuna falta da baina txapelketa aurrera doan heinean lortuko dugu.
**G.** Gustora zaude jokatzen duzun tokian?
**E.** Bai. Aurrean jokatzea atsegin dut. Denbora luzea daramagu jokatzen eta badakigu jokalari bakoitzaren toki aproposena zein den.
**G.** Taldearen bataz besteko adina?
**E.** 29.
**G.** Jokalari batzuek jaso dituzten zigorrekin ados?
**E.** Batzordeak erabakitakoarekin ados nago. Lehenago egin beharko litzateke. Jokalari batzuek ez dituzte epaileak ezta aurkariak ere errespetatzen.
**G.** Txapelketan ondo ari den jokalari bat?
**E.** Errotagaineko Mario Romero.

## gora eta behera

### Laugarren astez 1. postuan

Tom Cat Argandolas eta FAC taldeak dira 4 astetan lehen postuan direnak. Tom Cat-ek, 7 gol sartu zituen. FAC-ek, berriz, Artusamak-en kontra galdu arren alde handia ateratzen zion bigarrenari eta, beraz, lehen postuari eutsi dio.

### Zigor gehiago

Errotagain taldeko jokalari bati bi partiduko zigorra ezarri dio Antolaketa Batzordeak, Azpeitxi Jatetxearen kontrako partiduan, aurkari bati atzetik sarrera gogorra egiteagaitik.

## emaitzak

| | |
|---|---|
| Artusamak-FAC | **2-1** |
| La Juve-Komando Piperrak | **4-2** |
| Mongatxurrak-A Ze Flaxa Etxagi | **4-9** |
| Txipiron-Irubide Jatetxea | **5-3** |
| Amilotx-Zubixaurre Punk | **5-2** |
| Etengabe-Urrutxurtu | **1-9** |
| Igandekoak-Agirrebeña Jatetxea | **4-5** |
| Ari Ari-Sirimiri Eri | **0-0** |
| Bayer-Jakina Patxaran Team | **4-4** |
| Matxakategi-Xurrupak | **1-4** |
| Mo(ko)lotov-Ezinleike | **1-6** |
| Ion Autoak-SLP | **1-1** |
| HHH-Tom Cat Argandolas | **0-7** |
| Uve Bikoitza-Patatus | **4-0** |
| Moskis-Buya | **6-2** |
| Agiñaspi-Pinturas Bergara | **4-7** |
| Ufala-Arbe Kirolak | **1-3** |
| Azpeitxi Jatetxea-Ortzi | **6-1** |
| Guadalest-Amozkibar | **6-3** |
| Shaktale-Pagomendi | **1-4** |

## sailkapenak

**Lehen maila**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Pagomendi | 11 | 5 |
| 2. | A Ze Flaxa Etxagi | 10 | 4 |
| 3. | Errotagain | 9 | 4 |
| 4. | Bar Canalejas | 6 | 4 |
| 5. | Azpeitxi Jatetxea | 6 | 4 |
| 6. | Bildurbarek Opel/Lam | 4 | 4 |
| 7. | Mongatxurrak | 4 | 4 |
| 8. | Ortzi | 4 | 5 |
| 9. | Jauja OH Zerezos | 3 | 3 |
| 10. | Shaktale | 3 | 4 |

**A multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | FAC | 15 | 6 |
| 2. | Artusamak | 13 | 5 |
| 3. | Txipiron | 12 | 6 |
| 4. | Urrutxurtu | 12 | 6 |
| 5. | Komando Piperrak | 10 | 6 |
| 6. | Usoa | 9 | 5 |
| 7. | La Juve | 5 | 5 |
| 8. | Etengabe | 4 | 5 |
| 9. | Irubide Jatetxea | 3 | 5 |
| 10. | Ion Autoak | 2 | 6 |
| 11. | SLP | -2 | 5 |

**B multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Tom Cat Argandolas | 16 | 6 |
| 2. | Guadalest | 16 | 6 |
| 3. | Arbe Kirolak | 13 | 6 |
| 4. | Moskis | 12 | 6 |
| 5. | Uve Bikoitza | 12 | 6 |
| 6. | HHH | 10 | 6 |
| 7. | Agiñaspi | 7 | 6 |
| 8. | Ufala | 6 | 6 |
| 9. | Pinturas Bergara | 5 | 6 |
| 10. | Buya | 4 | 6 |
| 11. | Patatus | 1 | 6 |
| 12 | Amozkibar | 0 | 6 |

**C multzoa**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Xurrupak | 18 | 6 |
| 2. | Sirimiri Eri | 13 | 6 |
| 3. | Ezinleike | 13 | 6 |
| 4. | Bayer | 12 | 6 |
| 5. | Jakina Patxaran Team | 12 | 6 |
| 6. | Agirrebeña Jatetxea | 10 | 6 |
| 7. | Mo(ko)lotov | 6 | 5 |
| 8. | Ari Ari | 6 | 6 |
| 9. | Matxakategi | 3 | 6 |
| 10. | Amilotx | 3 | 6 |
| 11. | Igandekoak | 1 | 5 |
| 12. | Zubixaurre Punk | 0 | 6 |

### Sailkapenaren goi aldera

Lehen mailako kadeteek bi golez irabazi zioten Eibar taldeari joan zen astebururuan. Partidu parekatua izan arren, Bergarakoek erritmo biziz hasi zuten norgehiagoka eta partiduan zehar maila ona erakutsi zuten. Lehendabiziko gola lehen zatian lortu zuten.

Bigarren zatian, joko onak jarraitu zuen eta Arangururen jokalariak bigarren gola egiteko aprobetxatu zuten. Taldeak aldaketa handia somatu du joan zen denboralditik, jokalari asko kanpora joan baitira eta beste batzuk lesioak jota baitaude. Hala eta guztiz, taldea sendo ageri da eta aurreko postuetara hurbiltzen ari da. Horren eraginez, gero eta zaletu gehiago gerturatzen dira Ipintzara.

### Partidu ikaragarria domekan

Areto futboleko Bergarako Lagunak jubenil mailako mutilak lan bikaina egiten ari dira. Azkenengo partiduan 2-9 irabazi zuten Urretxuko taldearen kontra. Zapatuan, lehendabiziko postuan dagoen Beasainen kontra neurtuko dituzte indarrak. Bergarararrak 2. daude eta, beraz, partidu oso interesgarria izan daiteke.

Aitor Zabaleta ari da jubenil mailako talde berria zuzentzen. Gipuzkoakoan irabazle irteten denak Euskal Herria ordezkatzeko aukera izango du estatu mailakoan. Emakumezkoentzat ere lehendabiziko urtea da eta primeran dabiltza. Kasu honetan, adin mugarik gabekoa izatean jokalari askoz zaharragoen kontra jokatu behar izaten dute.

### Lehen postura bidean

Bolsos Bergarak jokatutako azken partiduan, 81-84 irabazi zion Oriori. Galtzen hasi arren, poliki poliki Bergarakoak aurrera egin eta lehen zatia amaitzerako 8 puntutara jartzea lortu zuen. Joko onak jarraitu egin zuen 2. zatian eta bergarararrak oriotarren aurretik jartzea lortu zuten 2 puntuz.

Hortik aurrera, partidua parekatu egin zen bi taldeen artean. Azken minututan, Iñigo Ziarsolo eta Jordi Pratek jaurtiketa libreak saskiratzea lortu zuten. Ziarsolok 20 puntu egitea lortu zuen eta Pratek, berriz, 10 baina guztiak azken minutuetan. Familiarren mutilek etxean jokatuko dituzte bi partidu jarraian eta hauek irabaziz gero, lehen edo 2. postua eskuratuko dute.

## AITOR ZABALETA / Pilotoa

## "Ibizako igoera izan da probarik zailena"

**Lau urtez jarraian Estatuko Txapelketa irabazi du. Ibizan jokatu zen azken proban emoziorik ez zen falta izan Zabaleta eta Vilariño faborito nagusien artean denborak parekatuta baitzeuden.**

**G.** Hiru puntuko aldea zenuen baina entrenamenduan Vilariñok denbora hobea lortu zuen nahiz eta puntuaketa proban zuk errekorra lortu.

**E.** Entrenamenduan arazo mekanikoak izan nituen baina berehala konturatu nintzen azeleragailuak ez zuela ongi erantzuten. Begiratu eta puntuaketa proban irteera hartu nuenean ondo erantzun zuen. Vilariñok errekorra lortu nuela jakitean arriskatu beharra zeukan. Bizkor irten zen baina bidetik atera eta denbora galdu zuen.

**G.** Kotxe ezberdina erabili duzu oraingoan.

**E.** Istripu bat izan nuen eta aurreko barketa kiskalita geratu zen. Txillidak bere barketa utzi zidan azken hiru probak egiteko. Bere barketa eta nerea aprobetxatuz, kotxe berria prestatu nuen. Aurreko batean egoera berdinean izan ginen eta orduan Txillidak nere barketarekin amaitu zuen txapelketa.

**G.** Zenbat igoerak osatzen dute Estatuko Txapelketa?

**E.** Bederatzik. Ibizakoa izan da zailena, ibilbidea ez bainuen ezagutzen.

**G.** Euskadikoa amaitzeko prest?

**E.** Bai. Hurrengoa Jaizkibelen izango da, azaro bukaeran.

**G.** Lau urtez jarraian txapeldun. Zerbait gehiago eska daiteke?

**E.** Urte ona izan da bai profesionalki eta bai pertsonalki. Europara joateko ahaleginetan gabiltza baina hori sponsorren esku dago oso garestia baita.



## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Anaitasuna**
Preferente maila
Zapatua. 15:45. Agorrosin

**Bergara-Almen**
Neskak. Zapatua. 17:00. Ipintza

**Bergara-Gazteak**
2. mailako infantilak
Domeka. 09:45. Ipintza

**Bergara-Koskas**
Lehen mailako infantilak
Domeka. 11:30. Ipintza

**PILOTA**

**Bergara-Soraluze**
Kadete maila

**Bergara-Aretxabaleta**
Jubenil maila

**Bergara-Soraluze**
Junior maila

**Bergara-Oñati**
2. mailako seniorrak
*Eguakitza. 22:00. Pilotalekua*

**BAQUE TXAPELKETA**
Domingez-Herran (Bergara)
Igor Agirre-Ormaetxea
Iosu Agirre-Azagirre
Jauregi-Nuñez
*Martitzena.19:00. Pilotalekua*

**SASKIBALOIA**

**Bolsos Bergara-Beasain**
Senior mailako mutilak
Zapatua.19:00. Polikiroldegia

**ESKUBALOIA**

**Bergara-Almen**
Jubenil mailako mutilak
Zapatua. 17:30 Labegaraieta

**Bergara-Aloña Mendi**
Kadete mailako mutilak
Zapatua. 16:15 Labegaraieta

**PALA TXAPELKETA**
Osintxun
**15.30:** Martinez eta Balzategi
Mancebo eta Urigoitia
**16:15:** Arregi eta Eñaut
Etxaniz eta Irureta
**17.00:** Alkorta eta Juaristi
Txurruka eta Etxeberria
**17:45:** Rico anaiak
Txurruka eta Manzanedo
**18:30:** Mendi eta Bayina
Lopez eta Gorge
**19:15:** Alberdi eta Agirrebeña
Acedo eta Acedo

**FUTBITO**

**Bergara Lagunak-Unibertsitate Laborala**
Domeka. 11:30. Labegaraieta

**Bergara Lagunak- Beasain**
Domeka. 12.30. Labegaraieta

# Afari batekin eman zion bukaera Lokatzak 97/98 denboraldiari

## Txirrindulari, guraso, antolatzaile eta laguntzaileak bildu ziren

**Badira urteak Lokatza taldea Bergaran txirrindulari gaztetxoetaz arduratzen dela. Futbol talde bat osatzen zuen lagun kuadrila izatetik, atletismoan aritzera eta gaur egun txirrindularitzaz aduratzera iritsi da. Elkarteak, 20 urte baino gehiago daramatza martxan. Denboraldiaren amaiera iritsi dela eta, Miguel Angel Larrañaga presidentearekin eta Jesus Mari Gabilondorekin hitz egin dugu. Martxoan, San Jose egunean izango den lasterketak denboraldiari berriari hasiera emango dio.**



Euskal Bizikletaren etapa-bukaera izan zen amaitu berri den denboraldiko ekitaldirik aipagarriena.

Txirrindularitza atsegin duten gaztetxoz arduratzeaz gain, Lokatza, hainbat lasterketen antolatzaile da. Amaitu berri den denboraldian, esaterako, Bergarako jaietan antolatutako Euskal Bizikletako etaparen amaiera izan zen proba garrantzitsuenetariko bat. Dagoeneko, Euskal Bizikleta birritan izan da Bergaran: 92an eta aurten.

Bestalde, Bergara, Antzuola eta Elgetako lasterketak antolatzeaz arduratzen dira. "Bergarako txirrindulari Eskola arduratzen zen baina erreleboa hartu diogu. Une honetan bi zeregin garrantzitsu ditugula esan daiteke: alde batetik, gaztetxoen txirrindulari eskolaren ardura eta, bestalde, lasterketak antolatzearena. Guztira 7 lasterketa.

### Zuzendaritza Batzordea

Juanito Suinaga presidente lanetan aritu zenetik, aldaketa ugari izan dira. Une honetan, Miguel Angel Larrañaga, Jose Mari Gabilondo, Pello Garitano, Jesus Kortabarria, Juan Mari Aranzabal eta Vicente tesoreroa daude batzordean."Zorte handia izan dugu laguntza lortzeko garaian. Gazteek lan handia egiten dute mutikoekin. Beste elkarte batzuetan ez da horrelakorik ikusten". Martxora arte, txirrindulariak prestaketa saioak egiten jardungo dira".

### Diru laguntzak

Udalak herriko elkarteei diru laguntza ematen die, beti ere partehartzaileak eta helburuak kontutan izanda. Lokatzaren kasuan, laguntza hori, txirrindularien asegurua, bidaiak, eta kotxeen mantenimendua ordaintzeko erabiltzen da. "Sponsorrek, bestalde, lasterketetarako behar diren jantziak ordaintzen dizkigute. Sumofic, esaterako, 10 urtetan zehar ari da laguntzen, Carabanas Oñatek ere urte asko daramatza eta duela bi urte Iñigo Igartuaren laguntza jasotzen hasi ginen.

> ***"Gazteek lan handia egiten dute mutikoekin. Beste elkarte batzuetan ez da horrelakorik ikusten"***

### Figurak

Badira Lokatza taldetik irtendako txirrindulari bikainak. Rikardo Iturbe, esaterako, Melchor Maurirekin batera selekzioan eta mundialean izandakoa da. Lesio baten ondorioz ez zuen profesionaletara igotzerik izan. Bestalde, Iñigo Igartuak eta Joseba Arietaleanizbeaskoak maila bikaina erakutsi dutenetarikoak dira. "Gure asmoa ez da gaztetxoak profesionaletara iristeko prestatzea, gogoko duten kirolean aritzeko laguntzak bideratzea baizik. Halere, norbait profesionaletara iritsiko balitz, izugarri poztuko ginateke". B

## Deba Garaiko Kirolari buruzko VI. Topaketak

# Futbola eta beste kirolak mintzagai

**Deba Garaiko** Kirol Zerbitzuak, kirolari buruzko VI. topaketak antolatu ditu Bergaran. Futbola, gainontzeko kiroletan izaten ari den eragin kaltegarria izango da hizpide, azaroaren 13an, Migel Altunako Areto Nagusian.

Honako hauek hartuko dute parte mahai-inguruan: Iñaki de Mujika, Herri Irratiko kiroletako burua, Julian Gomez, Gipuzkoako Foru Aldundiko kiroletako programa burua, Iñaki Almandoz Askatuak saskibaloi taldeko presidentea, Juan Luis Larrea, Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentea, Iñaki Bolinaga, Arrateko presidentea eta Asier Mujika, Euskal Pilota Federazioko zuzendaritza batzordekoa. Moderatzaile lanetan, Iñaki Ugarteburu, Bergarako Udaleko kirol teknikaria arituko da. Kirol zerbitzuaren ustetan, futbolak, gizarte eta komunikabideetan lortu duen garrantzia handia da eta honek gainontzeko kirolean eragina izan du. Kirolari gutxiago dago, prentsan oihartzun urriagoa izaten da eta sponsorrak lortzeko garaian, arazoak daude. Asmoa ez da futboleko jendearen aurka joatea, denon artean irtenbideak bilatzen saiatzea baizik. B



Hainabat kirol dira futbolaren eraginez zaletasun apala dutenak.

## ESKOLA KIROLA

### Karteldegia

**SASKIBALOIA**
Benjamin maila:
*Mariaren Lagundian*
**10:00:** Aranzadi 2-Antzuola A
**10:00:** Aranzadi 5-Antzuola B
**11:00:** Aranzadi 3-San Matin A
**11:00:** Aranzadi 6-San Martin B
**12:00.** M. Lagundia A-M. Lag. B
**12:00:** M. Lagundia D-M. Lag. E
Infantil mailako mutilak:
*San Biatorren*
**11:00:** San Biator A-Aranzadi

**FUTBOLA**
Infantil mailako mutilak:
*Musakolan:*
**09:30:** S. Fco. Xabier-M. Lagundia
**11:00:** Instituto- Aranzadi
*Ipintzan:*
**11:45:** Ipintza DBH-Kurtzeberri
Infantil mailako neskak:
*Ipintzan:*
**11:00:** Aranzadi-Almen
Alebin mailako neskak:
*San Martinen:*
**10:30:** San Martin-Aranzadi 14
*Ipintzan:*
**10:15:** Elgeta-M. Lagundia
**11:00:** Aranzadi 15-Antzuola

Alebin mailako mutilak:
*Ipintzan:*
**08:45:** Aranzadi 8-Aranzadi 10
**08:45:** Aranzadi 11-Antzuola
**09:30:** M. Lagundia A-San Martin
**09:30:** Aranzadi 13-Aranzadi 12
**10:15:** Elgeta- M. Lagundia B
Artsedena: Aranzadi 9

**ESKUBALOIA**
Infantil mailako neskak:
*Labegaraieta*
**11:00:** Aranzadi-Txantxi DBH
Infantil mailako mutilak:
*Amaña eskolan*
**10:30:** Eibar-Aranzadi

## 110 bergarar Behobiara

**110 antxintxikalari** izango dira Behobia-Donostia lasterketako irteeran domekan. Ibilbidea 20 km.koa da. Hasierako tropelean, joan zen urtean denborarik onena egin zutenak izango dira (1:10tik behera), 1:10-1:30 bitartekoa egin zutenak ondoren, eta, azkenik, gainontzekoak.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berriġarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**


**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak


## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Etxea salgai Osintxun. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Pisu amueblatua San Lorentzon. 943 76 21 63.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 48 86.

Aranerreka. 943 76 52 17.

### Erosi

Pisua erosiko genuke Bergaran. 943 76 57 87.

### Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartu nahi dut Bergaran. 943 78 71 31 (Jose Luis).

Pisua hartuko genuke alokairuan. 945 46 58 36 (Argiñe).

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 48 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Masterreka. 943 76 24 57.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

Garajea salgai San Antonio. 943 76 15 37.

### Errentan emateko

Garajea alokairuan Boļun. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

### Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokala komertziala herri erdian. 100-300 m2 bitartekoa. 943 79 11 71.

### Erosi

40 m2 inguruko biltegi edo baxua behar dugu. 945 14 17 84 (17:30-20).

### Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. Deitu 943 76 11 89telefonora.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 /76 37 80 (gauez).

## 4. LANA

### Eskaintzak

Helduak zaindu edo etxeko lanak (astebukaeran). 943 76 50 46.

Tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 37 56.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 78 70 32 (Sara).

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

### Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona edadetu bat zaintzeko. Deitu 943 76 47 76 telefonora.

Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Deitu 943 76 06 30 telefonora.

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu 943 76 47 93 telefonora.

Pertsona bat behar da Antzuolan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 78 71 06.

Umea zaintzeko neskamea behar da. 943 76 37 21.

Emakume bat behar da gizon bat orduka zaintzeko. 943 79 37 68.


ARREGUI, E.M.
AROZTEGIA
AROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK
Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

NEGOZIOA SALGAI
Murgiondo burdindegia S.L.
FEMUR
INERESATUOK DEITU TELEFONO HAUETARA:
943 78 06 65
943 27 85 43 (19:00etatik 21etara)
943 78 21 95
Kale Zaharra 62, Oñati

Jatetxe batean zerbitzari egiteko neska behar da
Bidali curriculumak:
295 posta kutxa
20570 BERGARA

Xabier Dekorazioak
Eskaiola
Isolamenduak
Pladurezko lanak
Tf. 943 76 15 94

## 5. IRAKASKUNTZA

### Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak. 943 76 70 40.

Filolojia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

1. eta 2. DBH klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu. 943 76 03 83 (Dani).

### Eskaerak

Italiera klaseak jaso nahi nituzke. 943 76 64 14 (Eva).

## 6.AUTOAK/MOTOAK

### Saldu

Aprilia Climber 91 motorra salgai. 943 76 07 28 (Ion).

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i (SS-AK). Aire egokitua. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai. 1,10x1 m. Poliesterrezko tapa. 943 76 37 87.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

## 7. ANIMALIAK

### Saldu

Artzain-txakurrak eta polizia-txakurrak salgai. 943 76 52 21.

Hispaniel-breton txakurkumeak. 943 76 71 94 (Pablo).

## 8. DENETARIK

### Saldu

Holton tronpeta salgai, egoera onean (75.000 pezeta). 943 76 48 23.

Labadora, hezetasuna kentzeko tresna eta ontzigarbigailua salgai. Deitu 943 76 00 85 telefonora.

Motorola telefono mobila salgai. 8.000 pezeta. Deitu 907 34 46 58 telefonora.

Kotxerako Pioneer irrati-kaseta eta edurretarako kateak salgai. Deitu 943 76 08 25 telefonora.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai. 943 76 26 84.

Super Nintendoko jokuak eta mandoak salgai. 943 79 57 64.

### Erosi

Teklazko akordeoia erosiko genuke. Deitu 943 76 12 49 telefonora.

### Galdu

Hilaren 18an perikitoak ihes egin zigun kaiolatik Mugertzan. 943 76 32 09/32 10. Sarituko da.

Zilarrezko kataia galdu zait egunotan. Delfin eta dordokatxo batekin. Deitu 943 76 70 75 telefonora.

Mickey Mouse-ren irudia duen erlojua galdu dut. Deitu 943 76 42 56 telefonora.

Zilarrezko pultsera galdu dut. 943 76 09 22/76 02 24.

### Aurkitu

Urrezko pultsera bat aurkitu dut. 943 76 11 80.

## 9.HARREMANAK

### Kontaktuak

33 urtetik beherako mutilekin harremanak izango nituzke. Xabi. Idatzidazu 91 PKra. 20560 Oñati. Erabateko zuhurtasuna.

**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

**MEKANIKO NAUTIKO 2**
Gernika-Bermeo. 12493/5

**ARKITEKTO TEKNIKOA**
Arabako Lautada. 13106/4

**TXARKUTERA**
Plentzia-Mungia. 13565/6

**TABERNAKO ZERBITZARIA**
Bilbo. 13582/3

**JANTZIGILEA**
Gasteiz. 13694/4

**ENKOFRATZAILE 2**
Donostia. 13710/1

**KALITATE-TEKNIKARIA**
Gorbeia inguruak. 13729/4

**GALDARAGINTZAKO LAGUNTZAILEA**
Durangaldea. 13736/3

**ELEKTRIZITATE INSTALATZAILE 2**
Urretxu. 13751/1

**MANPARA MONTATZAILEA**
Gasteiz. 13761/2

**JANGELAKO ARDURADUNA**
Bizkaia. 13763/1

**HODIGILEA**
Bilbo. 13796/3

**TIG SOLDATZAILEA**
Bizkaia. 13798/2

**DOITZAILEA**
Bilbo. 13800/4

**ELEKTRIKAKO SOLDATZAILEA**
Bilbo. 13803/1

**ADMINISTRARI-KONTULARIA**
Bilbo. 13813/1

**SOLDATZAILEA**
Plentzia-Mungia. 13892/5

**MANTENIMENTURAKO TEKNIKARIA**
Durangaldea. 13909/2

**INJINERUAK**
Donostia. 13933/2
Donostia. 13935/2

**OBRA-KOORDINATZAILEA**
Donostia. 13942/3

**INJINERU TEKNIKOA edo ARKITEKTO TEKNIKOA**
Bilbo. 13971/3

**ENPRESARITZAN DIPLOMATU edo LIZENTZIATUAK**
Arratia. 14110/2
Arratia. 14111/2
Arratia. 14112/2

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Bergarako Musika Eskolaren

# LAN ESKAINTZA

**Idazkaritzan egun erdiz lan egiteko pertsona behar da**

*Bergarako Musika Eskola.*

*Espoloia z/g.*
*Tf. 943 76 57 80.*

**Gutxieneko titulazioa:**
LANBIDE HEZIKETA II.
EGA eta INFORMATIKA IKASKETAK
ere beharrezkoak izango dira.
**Interesatuek AZAROAREN 20a baino lehen bidali Curriculum Vitae-ak.**

bergarako musika eskola

# Amodiozko gutunekin egindako liburua kalean

## Jardunek antolatzen duen lehiaketako gutun onenekin argitaratu da liburua

**Amodiozko gutunen Berrigara lehiaketako sei edizioetan saritutako gutunak biltzen dituen liburua aurkeztuko du Jardunek datorren astean. "Maitasunez..., amodiozko gutunak 1993-1998 eta piropoak" da liburuaren izenburua.**

Amodiozko gutunen lehiaketaren zazpigarren edizioa aurkeztearekin batera argitaratuko da liburua. Bertan, orain arte antolatu diren edizioetako karta onenekin batera, 21 gutun guztira, Azpeitiako AEK euskaltegiak, Oñatiko Laixan euskara elkarteak eta Euskadi Irratiko "Salako leihoa" irratsaioak 1998an antolatutako piropo lehiaketetako piropo eta maitasun deklarazio batzuk biltzen dira; 150 guztira.

Horretaz gain, amodiozko gutunen lehiaketako datuak (epai-mahaiko kide izan direnak, zenbat aurkeztu diren, adina, sexua...) ere jasotzen dira. Hitzaurrea, Jose Angel Mikeo Jarduneko lehendakari ordeak idatzi du eta Patxi Zubizarreta idazle eta lehiaketan epaimahaikide izan denak ere parte hartu du liburuan "Brunok aurten ez du gutunik jasoko" lanarekin. Saritutako gutunen egileen argazkiak ere badakartza liburuak.



Liburuaren azala Karlos Galarragarena da.

Liburuak 113 orrialde ditu eta azalean Karlos Galarraga pintore bergararraren margo bat agertzen da. Gutunak era guztietakoak dira: trajikoak eta ezinezko harremanen islada; umore finekoak eta ironiaz landuak; amodio gardenak edota lehen maitasunaren inozentzia eta pasioa adierazi beharra dutenak; erotikoak eta pornografiaren muga zeharkatzen dutenik ere bada...

Liburua eta lehiaketako zazpigarren edizioko oinarriak, esan bezala, datorren eguenean aurkeztuko dira Donostian eta Bergaran. Liburua Jardun elkartearen egoitzan (Kartzela Zaharrean) eta liburudendetan jarriko da salgai 1.000 pezetan. B

## David Azurzaren lan bat saritua izan da Tolosako Abesbatzen Lehiaketan

**David Azurza** Bergarako Orfeoiko zuzendariak XXX. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen lehiaketan lehen saria eskuratu du haur abesbatzendako konposizioen sailean. "Bost joku zerutiar" lanagatik saritu dute. Azurzak musika konposatu du eta testua Joxemari Iturralde tolosarrarena da.

Bestalde, Bergarako Orfeoia buru belarri prestatzen ari da Santa Zezilia eguneko kontzertua. Egun horretan, azaroak 21, omenaldia eskainiko zaie Orfeoiko kide izan direnei, 22:30etan Udal Pilotalekuan Orfeoiak eta Opus III Percussion Ensemble taldeak emango duten kontzertuan. B




Mujika gozotegia
Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65

# Doctor Deseo eta King Putreak zapatu gauean Jam aretoan

## Doctor Deseok gero arte esango digu 2000. urtera arte

**Doctor Deseo eta King Putreak taldeen emanaldia iragarri da zapatu gauerako Jam aretoan. Doctor Deseok, Euskal Herrian emango duen azken kontzertua izango da zapatukoa, ondoren, 2000. urtera arte zuzenekorik ez emateko asmoa azaldu baitute bilbotarrek. Azken diskoa, "Hay cuentos aún por inventar", aurkeztuko dute Bergaran.**

Harrigarria da Doctor Deseok izan duen ibilbidea. Beti izan da *kulto* talde bat, hau da, jarraitzaile gutxiko taldea izan da beti, nahiz eta hauek oso fidelak izan. Bestalde, ez dira atzo goizekoak, urte ugari -askok uste duten baino gehiago- baitaramatzate bidean.

Azkenaldian, ordea, jarraitzaile asko dituzte gazte jendearen artean, batez ere. Gaztetxoen artean sortu duten bat bateko interes hori abesti bati zor diote neurri handi batean Francisek eta bere lagunek, hain zuzen ere "Fugitivos del paraiso" (Oihuka, 1991) diskoan aurkitu daitekeen "Corazón de tango" zoragarriari.

Taldeak aldaketa asko izan ditu. Francis (kitarra eta ahotsa) eta Josi (bajoa) dira hasieratik jarraitzen duten bakarrak. Bestalde, orain dela zazpi bat urte, Hertzainak desegin zenean, Txanpi (bateria) eta Kike (kitarra) sartu ziren. Hauekin batera, Raul (teklatuak) izango da zapatuan Jamen.

Zapatuan, aurten Discos Suicidasekin kaleratu duten disko berria aurkeztuko digute. "Hay cuentos aún por inventar" salduenetakoa izan da kaleratu osteko lehenengo asteetan.

Doctor Deseorekin batera, King Putreak izango dira. Madrildarrek euren estraineko diskoa aurkeztuko digute. Kontzertua 22:00etarako iragarrita dago eta sarrerak 1.000 pezeta kostako dira.

Hurrengo asteetarako, bestalde, hiru kontzertru interesgarri iragarri dira Jamen. Alde batetik, datorren zapatuan, hilak 14, Vargas Blues Band eta Ritual de lo habitual taldeak izango dira. Eguaztenean, hilak 18, Motorhead eta Anarko (2.800 PTA). Hilaren 21ean, Bruce Dickinson, Iron Maiden taldeko abeslaria, eta Pink Cream 69 (2.500 PTA). Motorhead mitikoek ikusmin handia sortu dute. B



Aurreko diskoaren azala.

**salduenak / urria**

## LIBURUAK

**Euskaraz**

1. EUSKAL ZIBILIZAZIOA
   Gaiak
2. TXONDORRAK, KAROBIAK ETA ELURZULOAK
   Olañeta eta Urkiola. Bergarako Udala
3. NAUFRAGO BATEN KONTAKIZUNA
   Gabriel García Márquez. Ekain
4. MUNDUAREN NEURRIA
   Iñaki Aldekoa. Alberdania
5. GAUZAK APUR BAT KONPLIKATU DIRA
   Pablo Sastre. Elkar

**Erdaraz**

1. EL HEREJE
   Miguel Delibes. Ancora y delfín
2. EL DIARIO DE BRIDGET JONES
   Helen Fielding. Lumen femenino
3. EL LÁPIZ DEL CARPINTERO
   Manuel Rivas. Alfaguara
4. RAMSES BAJO LA ACACIA DE OCCIDENTE
   Cristian Jacq. Planeta
5. TIERRA DE LOBOS
   Nicholas Evans. Plaza & Janes

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba eta Zangitu*

## DISKOAK

1. MI VIDA
   Julio Iglesias
2. DILE AL SOL
   La oreja de Van Gogh
3. TUBULAR BELLS III
   Mike Oldfield
4. DESDE MI AZOTEA
   Navajita plateá
5. DABILEN HARRIA
   Ruper Ordorika
6. LUNA NUEVA
   Rosana
7. AHUEN SINFONIKOA
   Lertxundi & Euskadiko Orkesta Sinfonikoa

*Iturria: Etxepare-Bilintx eta Zaiazko*

PANADEROKUA JATETXEA
Asteburuetan bertako babak eta sabieskia
SALBADOR 10 ELGETA
TF. 943 76 82 73

LASAGABASTER
LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

## denborapasa / LUMA



### Ezker eskuma

1. Sartalde. 2. Araudiak. 3. Alde. Hosto. 4. iparraldeko alderdi abertzalea. Zein lekutara. Mila. 5. Munstruoa. Röntgen. Egile atzizkia. 6. Emakume izena. Lurrari buelta emateko lanabesa. Nitrogenoa. 7. Infusio-mota. Txerri-osola eta beste gai batzuk nahasirik egiten den hestebetea. 8. Beldurti. Ate, hitz elkarketan. 9. Adaskak. Herri giputza. 10. Emakume izena. Burua.

### Goitik behera

1. Zientzia zehatza. 2. Jasanezin. 3. Naroa. Haur. 4. Daukat. Uranioa. Bururatu. 5. Etenak sortzen diren tarteak. 6. Bigarren hizkia. Hutsa. Lehengo eta laugarren bokalak. Errepikatuz, gorotza. 7. Abuztua. Sufrea. 8. Italiako dirua. Pluralean, agiri-mota. 9. Errepikatuz, ikara. Berrogeita hamar. Trebe. 10. Ekintza. Bokal errepikatua.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

*1. Mendebalde. 2. Arautegiak.*
*3. Tarte. Orri. 4. EMA. Nora. M.*
*5. Mamua. R. Ie. 6. Ana. Laia.*
*N. 7. Te. Odolkia. 8. Izuti. Ata.*
*9. Kimuak. Aia.*
*10. Ane. Kaskoa.*

*Goitik behera*

*1. Matematika. 2. Eramanezin.*
*3. Narama. Ume. 4. Dut. U. Otu.*
*5. Etenaldiak. 6. Be. O. Ao. Ka.*
*7. Agorrila. S. 8. Lira. Aktak.*
*9. Dar. L. Iaio. 10. Ekimena. Aa.*

## bonofotoa



Baserria zutik zegoenean

Miguel Angel Elkoroberezibar

## *Zein da egoera honetan aurkitu dezakegun Osintxuko baserriaren izena?*

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Toki Ona** bodegoian izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Nuria Perez**entzat izan da: Osintxu asadorean bi lagunendako afaria. Zorionak Nuriari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **"Zerukua"**
Galde Debalde: **1-C, 2-A, 3-B**

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Ze urtetan sortu zen Bergarako Errege Mintegia?
A- 1777
B- 1789
C- 1698

2. Aitor Zabaletak zenbat aldiz irabazi du Estatuko Mendi Igoera txapelketa ?
A- 5 aldiz
B- 3 aldiz
C- 4 aldiz

3. Ze izen dauka Tolosan saritua izan den David Azurzaren musika konposizioak?
A- Bost joku lurtar
B- Ogi zerutik etorria
C- Bost joku zerutiar

**BONOFOTOA** ____________

**GALDE DEBALDE** *1:* ____ *2:* ____ *3:* ____

Izena-deitura: ______ Telefonoa: ______

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**TOKI-ONA**
**Bodegoia-taberna**
Matxiategi 1
Tf. 943 76 39 53

**Albitxu baserrikoa, Mari Cruz Maiztegi Sussen Vascan hasi zen lanean baina lan hura gustatzen ez zitzaionez, Ninika loradenda zabaldu zuen. Berarekin Isabel Pascual ari da dendan. Egunotan Ninikak zilarrezko ezteiak betetzen ditu.**

# Mari Cruz Maiztegi



**Zergatik loradenda bat?**
Gizonezkoen ileapaindegi bat irekitzekotan egon nintzen baina, azkenean, lorak...
**Lorak txikitatik gustatzen zaizkizu?**
Bai. Mertxe, nire amari, ere izugarri; 20 urtetan nirekin izan da lanean.
**Zer behar da dendan lan egiteko?**
Pazientzia eta jendearekin atsegina izatea.
**Lorak saltzeko sasoirik onena?**
Azaroaren 1a, maiteminduen eguna, Gabonak, Amaren eguna...
**Eta txarrena?**
Azaroa.
**Emakumeak ala gizonak etortzen dira gehiago dendara?**
Biak antzera baina gizona bezero hobea izaten da, gauzak argiago dauzka.
**Jendeak usaimena garatua du?**
Ez.
**Gustoko lora eta landare bat?**
Tulipana eta garoa.
**Gutxien gustatzen zaizuna?**
Bilbergia.
**Etxean non dauzkazu landareak?**
Saloian eta sukaldean.
**Bonsairik badaukazu?**
Ez, ez zaizkit gustatzen.
**Bota dizuten lorerik politena?**
Loradendako lorerik politena naizela.
**Gizon bati lorak oparituko zenioke?**
Bai, bat baino gehiagotan egin dut.
**Maiteari, zein lore?**
Larrosa gorria.
**Lagun minari?**
Tulipan sorta.
**Aurkakoari?**
Kardua.
**Urtaro bat?**
Udazkena.
**Perfume bat?**
Issey Miyake.
**Jasotako azken oparia?**
Isabelek oparitu zidan puntokruzezko koadro bat.
**Egindako azkena?**
Jertse bat, anaiari.
**Gomendatu liburu bat.**
"El hombre que susurraba al oido de los caballos" (Nicholas Evans).
**Gehien apreziatzen duzun bertutea?**
Egiazaletasuna.
**Mania bat?**
Puntuala ez izatea.
**Egunean zenbat ordu lo?**
Zortzi.
**Eta zerekin egiten duzu amets?**
Amesgaiztoak izaten ditut...
**Loterian 300 milio irabaziz gero?**
Zati bat banatu eta bestearekin bidaiatu, Kaliforniara adibidez.
**Nork irabaziko du euskal derbya?**
Realak, 2 eta 1.


ARDATZA
Brikolaketa
Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak
Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78





DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkalea 29 BERGARA

IGELTSERITZA
BIAK, S.L.
IGELTSERITZA
A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38



# *Gaztetxoen futbol txapelketa, 1935*

Gaur egun futbola gustoko duten herriko gazte gehienak Kiroldegiko futbito txapelketan aritzen badira ere, garai batean futbol txapelketak ez ziren leku itxietan jokatzen, kanpoaldean baizik. Goiko argazkia 1935. urtekoa da eta bertan Seminarioko dominikoek antolatutako futbol txapelketako partaideak ikus ditzakezue. Gaztetxoen artean kirola bultzatu nahian, Don Juan Gabilondo abadeak eta dominikoek martxan jarritako txapelketak harrera bikaina jaso zuen eta 1935. urtean Artekalea, Barrenkalea, Bidekurutzeta, Labegaraieta eta Mizpildiko taldeak izan ziren lehian. Partiduak Seminarioan jokatu ziren eta argazkian ikus dezakezuenez porteriak bertako pilotalekuko paretan marrazten ziren. Artekaleko Beti-Ondo taldeak eskuratu zuen garaipena eta bigarren lekuan Labegaraietako taldea sailkatu ei zen. Argazkiako mutiko guztiak identifikatzerik izan ez dugun arren, horra hor garai bateko futbol txapelketen oroimenerako irudia, argazki album-ean gordetzeko modukoa.

*Argazkia: Jesus Larrañaga*

**OHARRA**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu.
Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

KONDE
PANADEROKUA



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

# egizabal

**Oinetakoak**
**eta poltsak**




Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.

Ferrerias 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta 13 • BERGARA • 943 76 12 28





# Armazoia

+

PRESVISION® 2

**lente progresiboak**

**19.900 pezeta!***

CIONE
Optika taldea

**P. MANSO**
**Optika**

Irizar 2 BERGARA
Telefonoa: 943 76 27 86

* Roberto eta Andrea modeloko armazoiak. Edozein graduaziotarako. Eskaintza hau 1998ko azaroaren 30era arte edota salgaiak agortu arte izango da indarrean.

# ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



LOGELETAN
maisuak

**Zapatu arratsaldeetan zabalik!!**



Eta orain
2. SOLAIRUA

Saloi eta sofa erakusketa

Etxe Mobel, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.
Bertako profesionalek zuzendua. BENETAN HARRIGARRIA!

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxa: 943 79 41 82

**ARRASATE**